

uk

80. zenbakia / 2005 maiatzak 8





# GETXO **arte**

ARTE SORTU BERRIEN ARETOA / SALÓN DE LAS ARTES EMERGENTES  
MAIATZA 20·21·22 MAYO  
2005



El arte basado en una obra de David Lauff.

ORDUTEGIA/HORARIO >> 11:00-14:00, 17:00-21:30 SARRERA/ENTRADA >> 2€  
AREETAKO GELTOKIKO PLAZAKO KARPAN // CARPA DE LA PLAZA DE LA ESTACIÓN DE LAS ARENAS  
Beste sarrera bat duen BBK 26 txartela edo unibertsitate karneta aurkeztuz // Otrorik gabea gertatzen da txartela BBK 26 e carnet unibertsitate

## Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Kirikolatza Unben. Asier Mentxaka.
- PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Iñaki Zarracoa. Photoshop.
- LEHEN ETA ORAIN. Getxoko Basalbo baserria.
- TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- ERRETRATUA. Iñaki Intxausti. A. M.
- HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopelana 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- AGENDA.

### SAKONEAN

- ALBUMA. Haize-orratzak, Asier Mentxaka.
- ERREPORTAJEA. Urdulizko Mekanika la Peña, Unai Brea.
- ARGAZKIA. Txirindulan, Juan Luis Markaika.
- BERBETAN. Gonzalo Iribarnegaray, U. B.
- FOTOGRAFIA. Algortako arraunlariak, Asier Mentxaka.

### KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Fant zinemaldia.
- MUSIKA. Riff musika denda eta eskola. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. *Volgako batelariak*. Liburuaren erreseinak.
- KIROLA. Algortako Arraun Taldea.


### EUSKARAZ

- ELKARRIZKETA. Alicia Fernandez, Unai Brea.
- AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

### AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardazaren gaineko lezioa. Non jan? Adibidez, Urruti Etxe jatetxean.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Piperrak koadrila, 1984, Bittor Egurrola.
- AITORMENAK. Asisko Urmeneta, Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Jaunartzea Getxon



30 Gonzalo Iribarnegaray

### Berbetan


Bere lehenengo nobela aurkeztu du Gonzalo Iribarnegaray bidaia eta idazle algortarrak: *Tiempos turbulentos*. Beragaz egon gara.



9 Iñaki Intxausti



49 Urruti Etxe jatetxea



34 Algortako Arraun Taldea



24 Juan Luis Markaika argazkia



54 Asisko Urmeneta



## AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

BATXILERGOAK • TEKNOLOGIKOA  
• NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)  
B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilaren 27tik maiatzaren 6ra / matrikulazioa: uztailaren 1etik 6ra

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.AIXERROTABHI.NET](http://WWW.AIXERROTABHI.NET) / 94 491 17 86





## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta

**HELBIBIDEA:** Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31

**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru

**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Amaia Arriaga

**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka

**TESTUEN ORRAZKETA:** Jon Etxebarria

**KOLABORATZAILEAK:** Unai Brea, Jon Urresti,  
Bittor Egurrola, Itxaso Arana, Goizka Escudero,  
Xabier Bilbao, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Unai Amezaga,  
Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea

**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Gorka Vázquez

**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

**KANPO HARREMANAK:** Gorka Orueta

**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00

**ISSN:** 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaide da

|                                                                                   |                                                                                  |                                                                                   |
|-----------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------|
|  | <b>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkarteen dirulaguntza jasotzen du</b> |  |
| Itxasgane Etxea / Karitatea 1<br>94 491 43 57 / 48990 Algorta                     |                                                                                  |                                                                                   |

|                                                                                   |                                                              |
|-----------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|
|  | <b>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</b> |
|-----------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------|

|                                                                                    |                      |                                                                                    |                                                                |
|------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|
|  | <b>Leioako Udala</b> |  | <b>Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du</b> |
|------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------|

|                                                                                     |                       |                                                                                     |                                                                   |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|
|  | <b>Erandiko Udala</b> |  | <b>Aldizkari honek Erandiko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</b> |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|

|                                                                                     |                               |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------|
|  | <b>Bizkaiko Foru Aldundia</b> |
| Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du                      |                               |

|                                                                                     |                                                                                     |
|-------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------|
|  |  |
| Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du           |                                                                                     |



aldizkaria  
**etxean**  
jaso nahi  
baduzu

94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

gugeu

# Ahalegintzea da kontua

**Ailegatu dira enarak gurera** eta urtero legez eguraldi ona ekarri dute eurekin. Argi orduak gehiago dira, temperaturak gora doaz eta ia denok alaiago, umoretsuago sentitzen gara, uda hurbilago antzematen dugu. Eta uda eta opor garaia buruan daukagula, “bainu-jantziaren borroka” ere ekarri dugu geure hausnarketetara: bainu-jantzi berria erosi beharko ete dut? Batzuek moda kontuengatik erosiko dute berria, baina beste batzuok txiki lotu zaigulako ez al dugu egin beharko?

Hori gerta ez dadin, kirol egiten hastea otu zaigu UK-ko lantaldeari, eta horregatik eskualdean dauzkagun aukera batzuk aztertzen ibili gara: arrauna, bodyboarda, triatloia, sokatira, txirrindularitza... eta zergatik ez, dieta apur egitea ere ez letorkiguke txarto. Alabaina, ez dugu itxuragatik bakarrik egingo, ezta pentsatu ere! Sasoi onean egoteko osasuna jagoteko baina.

Eta gogoeta horretan gabiltzala zera otu zaigu: bizitza bera ere dieta egitea dela, egunero ahalegindu behar dugu, egunero osasuna zaintzeko ahalegina egin behar dugu luze bizitzeko. Plazerak gutxitan eta apurka dastatuz, berde zaporekoak egunero irensten, pastelak gauero amets. Eta ispiluko errealitea dakusagunean (egoerarik onenean) merezi izan duela iriztea, eguneroko ahalegina plazer gutxi eta apurretara bideratuta dagoela sinistea.


Bizitza bera ere dieta delako. Baina beste hau ere otu zaigu: dietarik egin behar ez dutenak ere badira, eta ahoratzeko ezer ez daukatenak ere bizi dira. 4

UK-ko lantaldea

## gutunak

**Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31**

## matematika aplikatua



Goizero irakurri > berria

[irudia]



UNBE, 2005eko APIRILA

**Kirikolatzairen heriotza** / Esnatu da kirikolatza eta dakizkien hitz guztiak ekartzen ditu gogora, gutxi gorabehera hogeita zazpi. “*Marraskilo, zizare, zomorro, armiarma... non izkutatzen zarete? Goseak nago*”. Eta abiatzen da, eta zeharkatzen du belardi eta errepedearen arteko muga. Gure denboran sartzen da pausu bakar batez eta nola bere hiztegi unibertsala ez den azken zazpi mila urteotan berritu, ez ditu ezagutzen gure autoaren argiak, ez da ohartzen bere heriotza hurbiltasunaz ere. m / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Leihatila

> Maddi Albizu

Ke zuria

Joshep Ratzinger Aita Santu berria dugu. Izen hori aditzen dudan bakoitzean ezin diot txikitako marrazki bizidunetako pertsonaje baten izena gogora ekartzeko tentazioari eutsi: MAZINGER!! Txantxa inozo hau barkatuko didazue, arren. Baina bromak alde batera utzita, ez da kontu hutsala, ez horixe, Aita Santua hautatzearena. Juan Pablo II hilzorian egon den egunetan behin eta berriz galdetu diot neure buruari ea zein eragin izan lezakeen gizakion etorkizunean Aita Santu berria bata ala bestea izateak. Galderari bi ikuspuntutatik egin ahal zaio aurre. Bizitzari buruzko ikuspuntu konspiratiboaren arabera, hau da, mundu honetan den-dena botere gune zehatz batzuetan erabakitzen dela uste dutenen arabera, ezer gutxi alda daiteke Aita Santua bata izan ala bestea izan, hark hartuko dituen erabakien bidea aldeaz aurretik definitua dagoelako edo. Ni, ordea, pertsonaje batzuek historiaren bilakaeran eragin handia izan dezaketela benetan sinisten dutenetakoa naiz. Bada historian erabat kontrolatzerik ez dagoen elementu bat: *the human factor*, faktore humanoa alegia. Ikus dezagun, bada, Aita Santu honek gizateriaren etorkizun ilun honetan argi apur bat emateko gai den ala, besterik gabe, aurrez markatutako bidetik jarraitu besterik egiten ez duen. 4

IRITZIA

Zer behar da herri honek bakea lortzeko? Galdera hau luzatzen ari gatzazkio eskualdeko hainbat laguni. Oraingoan Iñaki Zarraoa Getxoko alkatearen txanda da.

Zer behar da herri honek bakea lortzeko?

**Bakeari buruz** aritzen garenean ETaren indarkeriaren bukaeraz aritzen gara gehienbat, nahiz eta jakin Estatuaren indarkeria ere neurtu, kontrolatu, bere neurrira eraman behar dela. Ni ere ETaren indarkeriaz arituko naiz.

Frankismoaren garaian herriaren gehiengo esanguratsu batek ontzat hartu zuen ETaren sorrera. Baina egoera guztiz aldatu zen Franco hil zenean. Estatuak demokrazia eskuratu zuen, ez nahi genukeena bezain osoa, baina toki gutxitan zuten eta dute guk dugun egoera demokratikoa (Europako Estatu batzuetan soilik eta ez guztietan).

Gaur egun nahiko askeak gara eta herriaren gehiengoak indarkeria gaitzesten du. Baldintza hauetan ez da indarkeria hau zilegia. ETakideek ezin dezakete esan herriaren izenean ari direnik.

Hori hala izanik, haxe da bakea lortzeko lehenengo bidea: ETak indarkeria utz dezala betirako bere kabuz, herriak onartzen ez duelako.

ETA desagertzen ez bada? Ezin daiteke

ukatu ETak indarkeria helburu politiko batzuk lortzeko erabiltzen duenik. Eta bestalde, bakea nahi dugunok indarkeria dagoenean ahaleginak egin behar ditugu desager dadin. Beraz, lehenengo bideak huts egiten badu, beste zerbaiz bilatu behar dugu.

Bigarren bide hori dudarik gabe demokrazia sakontzea da. Orain herriak ez dituen eskubideak eskuratzea, herriari hitza ematea, herriaren gehiengoaren borondatea errespetatzea, era honetara erraztu egingo diogulako gaur egun ETaren alde dagoen jendeari sisteman sinistea.

«Bakea lortzeko lehenengo bidea: ETak indarkeria utz dezala betirako bere kabuz, herriak onartzen ez duelako»

Eta bide honetan, jakina, beste injustizia batzuk konpontzen joan behar dugu. Mehatxupean dauden pertsonen askatasuna eta lasaitasuna eman behar zaie, biktima guztiei barkamena eskatu ez ezik onarpena eta hurbiltasuna ere eskaini behar zaie, kartzelen egoera aldatu behar da giza eskubideak errespetatuz eta gizarteratzea helburu jarritz, presoak hurbildu behar ditugu beraien eta beren senitartekoen onerako. Eta epe ertainean presoen askatasuna ere hitzartu beharko da, ahalik eta lasterren indarkeria behin betiko desagertzen bada.

Estatuak eta alderdi konstituzionalistek herriaren eskubide horiek onartu behar dituzte. Euskalherriaren etorkizuna euskaldunok erabaki behar dugula beraiek egin behar dute bere. Hala ere, hasieran esandakoari berriro helduz, alderdi konstituzionalistek hau onartuko ez balute ere indarkeria ez litzateke zilegia izango, nahiko askeak garelako eta herriaren gehiengoaren nahia ez delako. Bestela edozein talderen astakeriak izan litezke justifikagarriak, eta hori ez daukagu ontzat hartzerik.

Ba al dago hirugarren biderik? Nik behintzat ez dut ikusten. 4

Iñaki Zarraoa Zabala (Getxoko alkate)



Iraganez doa denbora\* beti / GETXOKO BASALBO BASERRIA 1990-2005

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > euskal Airbus A-380





begizorrotz > kaleko adierazpenak

**Kaleetako** ormetan pintadak egiteari ezarrita dagoen debekuari aurre egiten dionik ere bada gaur egun. Herri honetan, alde handiz, asmo artistikorik gabeko pintada politikoak izan dira nagusi urte askoan. Baina apurka-apurka beste erako pintadak edo lanak hasi dira azaltzen, batez ere, graffitiak. Honen adibide argienak Lamiako, Astrabudua eta Erandio tren geltoki inguruak dira. Oraingoan beste adierazpide batzuetan ipini dugu arreta, plantillekin eta spray batekin egiten diren irudi bitxi horietan alegia. *Stencil* deitzen zaiela jakin ahal izan dugu eta motibo bera makina bat aldiz errepika daitekeela du abaintailik handiena. <sup>m</sup>



Han hemen topatuko ditugun hiru *stencil*

ekimena > emakumezkoak



**Eguraldi txarra** etsai izan bazuten ere, ezin hobeto egin zioten aurre II. Emakumeen Mundu Martxa aurkezteko Getxoko Bilgune Feministak antolatu zuen jaialdira bertaratutakoek. Besteak beste, bertso-saioa, hitzaldia, txalaparta, koreografia dantza eta Gorlizko R13 taldearen kontzertuagaz gozatzeko aukera egon zen. II. Emakumeen Mundu Martxa Brasilen hasi zen martxoaren 8an, eta Burkina Fason amaituko da urrian. Euskal Herrira maiatzaren 24an helduko da. <sup>m</sup>

kale izendegia > Florencio Constantino



**Tenore** bizkaitar honen jaiotza-data zehatzik ez dago; 1869an jaio zen, baina egun bi eta leku bi topatu ditugu: apirilaren 19an Bilbon eta azaroaren 23an Ortuellan. Dena dela, Argentinara joan zen, eta Montevideoko Gran Teatro Solís-en egin zuen debuta Bretónen *La Dolores* abesten. Italian eta Errusian kantatu ostean, Madrilgo Teatro Real antzokian jardun zuen zenbait denboralditan. Estatu Batuetan ere nabarmendu zen. 1916an, medikuaren aginduei jaramon eginez, Florencio Constantino gurera etorri zen, Algortara hain zuzen, emazteagaz eta lau seme-alabakaz bizitzera, baina berriro Ameriketarako bidea hartu zuen. Mexikon porrot egin ostean, hil egin zen 50 urte bete berri zituenean. Bizi zen etxearen aurrean, *Campa del Tenor* izeneko parketxoa dago (San Martin kalean), eta hantxe paratu zuten bere bustoa 1987an. <sup>m</sup>

Argazkian, Florencio Constatino tenorearen bustoa Algortan



Argazki hau atera genuenean, batez ere hegaztiak ikusi genituen osatzen: hontzak, putre bat, belatzak, karnabak... Denak noiz askatuko dituzten zain.

Iñaki Intxausti > Gorlizko Espezie Basatien Zentroaren zuzendaria

**Ospitale bat** bezalakoa da: laborategia, ebakuntza-gela eta zainketa intentsiboko unitatea dauzka. Gaixoak, ordea, ezberdinak dira: animaliak, edo zehazki esanda, espezie basatiak. *“Hemen tximinoak, fokak, pitoiak eta halakoak izan ditugu”*, diosku Iñaki Intxaustik (Barakaldo, 1950). Bizitza osoa eman du behien, zaldien eta txerrien ondoan, animalien zale amorratua dugu (etxean lau txakur dauzka) eta albaitaria da bokazioz. Munduko ukuilu guztietan egon ei da: Mungian, Nafarroan, Avilan edo Argentinan bost urtez behar egin duela esan digu. 1982tik Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza sailaren funtzionarioa dugu, *“baina ukuiluan ikusten dut hobeto neure burua bulegoan baino”*; hain zuzen ere, beharreko lan-jantzi berdeagaz hartu gintuen. Ia sei urte daroaz Gorlizko zentroan, 1999ko uztailean zabaldu zenetik, *“horren aurretik hau erortzeaz zegoen oilategia zen”*. Erasoak izan dituen fauna basatia babestea dauka helburu; osatu ostean, aske uzten dituzte eta jarraipena egiten diete: *“Gure lehenengo araua animaliaari sufrimendua saihestea da”*. Agertu ginen goizean (apirilak 26), Iñakik apoarmatuak askatu zituen Boluen; eta arrastian, berриз, *esculapio* izeneko sugea zentroko inguruetan: *“Orain askatzen gabiltza; hauxe da animalia gutxien daukagun urteko sasoi”*. Iaz ia mila abere “ospitaleratu” zituzten. <sup>m</sup>

Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Jon Urresti**



# Udaltzaingoaren

**74.000 salaketa** edo isun ipini zituzten udaltzainek, udalerrian gertatutako 406 istripuetan egon ziren eta guztira **77 lagun atxilotu** zituzten

**Getxoko Udaltzaingoak 34.893 gertakariri egin zien aurre pasadan urtean (gehienak trafikoko arauak haustearen ondorioz), 74.000 salaketa edo isun ipini zituen, 126 abiadura kontrol egin zituzten, 46 alkoholemia kontrol, tabernen ordutegiari lotutako 664 ikuskapen, etab.**

**Joan den urteko** Getxoko Udaltzaingoaren jardunaren berri eman du oraintsu Udalak. Datuetatik ondorioztatu denaren albotik, 2003an baino gertakari gutxiagori egin zien aurre iaz Udaltzaingoak: 37.000 izan ziren 2003an eta ia 35.000 pasadan urtean. Jaitsieraren arrazoi nagusia informazio eskaeren gutxitzea dela azaldu du Getxoko alkate Iñaki Zarraoak. Gertakari gehienak, %32, trafiko arauen ingurukoak izan ziren. Izan ere, trafikoari lotuta 74.000 salaketa edota isun ipini zituzten, horien %80 TAO sistemaren gainekoak (%3,6 gutxiago), eta gainontzeko 13.520ak trafiko arauak ez betetzeagatik (%25 egin zuen behera). Debekatutako lekuetan aparkatzeagatik isunen kopuruak behera egin zuen. Hala ere, Zarraoak azaldu moduan, *“jendeak oraindik ez ditu errespetatzen ezinduentzako aparkalekuak, kontzientzia falta handia dago”*. 2004an Getxon 406 istripu egon ziren (%9 egin zuen gora): zaurituen kopuruak behera egin badu ere (220), bi lagun zendu ziren. Udalerriko gune beltzak Mimenagako biribilgunea (35 istripu), Makaleta etorbidea, Arriluze, eta



104 udaltzain, 11 zaindari eta aldi baterako 7 langile ibili ziren lanean 2004an

Zugazarteko eta Algortako etorbideak dira. Bestalde, Getxoko udaltzainek 77 pertsona atxilotu zituzten, 11 genero indarkeriagatik. Halaber, 126 radar kon-

**«11 lagun atxilotu zituen Udaltzaingoak genero indarkeriagatik»**

trol eta 46 alkoholemia kontrol (132 emaitza positibo) egin zituzten. Tabernen itxiera ordutegiaren gainean 664 ikuskapen egin zituzten eta 187 hauste-agiri idatzi. Amaitzeko, 104 udaltzainek, 11 zaindarik eta aldi baterako 7 langilek jardun zuten Getxon iaz.

## Udaltzainak kexu

Getxoko udaltzainek protesta egin dute (artikulua idatzi bitartean behintzat) lan baldintzen inguruan onartutako akordioa

Udalak ez ei duelako bete. Lanean jarraituko dute baina ez dute isunik ipiniko, informazio eta prebentzio lanak baino ez dituzte beteko. Ostera, Zarraoaren esanetan: *“akordioa indarrean dago eta negoziatzio mahai orokorrean azaldu beharko lituzkete euren aldarrikapenak”*. m

## Datu batzuk

- **58 manifestazio eta 64 elkarretaratzetan** egon dira (Ertzaintzaren lagungarri).
- **93 kirol ekitaldi, 114 jai**, jaialdi, edo ikuskizun euren gain hartu dituzte.
- **406 istripu**, 220 zauritu eta 2 hildako.
- **Ez dira ezinduentzako aparlekuak** oraindik errespetatzen.
- **77 lagun** atxilotu zituzten.
- **74.000 isun** edota salaketa ipini zituzten.

# Bilgune Feminista martxan

## Emakumeen Mundu Martxaren

alde lan egiteko plataforma bat sortu gura dute eskualdean



Martxaren informazio gehiago: [www.emakumemartxa.org](http://www.emakumemartxa.org) / Harremanetarako: 685 713 187

**Getxoko Bilgune Feminista** buru belarri dabil II. Emakumeen Mundu Martxaren (Brasil-Burkina Faso) berri zabaltzen eta Martxaren zergatiak azaltzen. Euskal Herri mailan Martxari begira sortutako plataformaren barruan sartuta dago Bilgunea eta hari laguntza ematea da euren egitekoa beste hamaika bilgune, elkarte, sindikatu eta abarregaz batera. Getxoko Bilgunearen asmoa Uribe Kostan Martxarako beren beregi plataforma bat sortzea da, baina momentuz ez dute lortu: *“helburu horregaz sindikatu, emakume talde eta beste eragile batzukaz harremanen jartzen ahalegindu gara baina momentuz ez dira animatu; bitartean guk egin beharko dugu lana: eskualdean ekitaldiak dinamizatu...”* Ostera, ez dute euren asmoan etsi gura eta Uribe Kostako

andrezko denei Bilgunera hurbiltzeko deia luzatu gura diete.

Ez ei da Uribe Kostatik pasako Euskal Herrira maiatzaren 24an helduko da II. Emakumeen Mundu Martxa, baina ez ei da eskualdetik pasako Bilguneakoek esan bezala, *“hori lortzeko mugimendu askorik ez dago gurean; hala ere, gure esku dago gurean zeozer antolatzea pasatu edo ez”*. Dagoeneko egin dituzte aurkezpen ekitaldi batzuk, eta jaialdia antolatuko dute Erromoko Gaztetxean (maiatzak 13). Martxa amaitutakotan ere lanean jarraituko dute, eurek esan legez: *“parekotasuna, berdintasuna hurbilago dagoela zabaldu eta sinestarazi nahi digute, baina gauzak ez dira aldatu”*. m

## AQUARIUMEKO ARRAIN-ONTZIAK DONOSTIARA EROANGO DITUZTE

Getxoko Abra Aquariumeko atea ixtea erabaki dute Fernando eta Jose Maria Gorostiaga bertako jabeek. 2004ko urtarilaren 22an zabaldu zen 400 metro koadroko Aquariumetik 50.000 bat pertsona pasatu dira, horregatik bertako arduradunek adierazi dutenez itxiera ez ei da izan bisitari faltagatik edota erakundeen laguntza ezagatik. Udarako itxita egongo da Bizkaiko aquarium bakarra zena. Hala ere, bertako 24 arrain-ontziak Donostiako Aquarium-Itsas Jauregira eroango dituzte: itsaso tropikaletakoak azaro aldean, eta Kantauri eta Atlantiko hondoetan girotutakoak datorren urte hasieran.

## IA 1.500 IKASLEK PARTE HARTUKO DUTE EUSKAL JAIAN

Ikasturtean zehar Euskal Dantzak, Euskal Kantak eta Bertsolaritza lantegietan ikasitakoa erakutsiko dute 1.500 bat ikaslek Euskal Jaian. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatzen duen jai maiatzaren 12an egingo da. Faduran dantza eta kantu emaldiak egingo dira (10:00) eta Getxo Antzokian bertsolariena (10:30).

## SOROSLEEN KONTRATUA UDALAREN ESKU

Getxoko Udalak hondartza daukaten Bizkaiko beste 29 udalakaz batera (Gorliz, Plentzia eta Sopelana barne), Foru Aldundiagaz, Eusko Jaurlaritzagaz eta BBKgaz hitzarmen bat sinatuko du laster. Getxoko alkate Iñaki Zarraoak azaldu legez horren helburuak honakoak dira: *“uraren kalitatearen ardura eta zaintza, areatzetako azpiegiturak hurbiltzea eta mantentzea, kudeaketa arloan kalitate ziurtagiria lortzea, ingurugiroa jagotea eta elkarlana ahalbidetzea, erabiltzaileei arreta ona eskaintzea, etab.”* Hitzarmenaren bidez, Udalaren esku geratuko da sorosleen kontratazioa, eta horretarako zein hondartzainak kontratatzeke Aldundiaren diru-laguntza jaso dezake.

**cianoplan**  
global printers

Vila de Plentzia 6. zbk  
Antigua Goll - Getxo  
Tlf. 944 649 067  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>

**Reprografía**  
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua  
Imprimatze eta plano kopiak  
Karteak kolorez eta z/b  
Fotokopiak kolorez eta z/b  
Era desberdinetako koadernaketak  
Plastifikazioak  
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak  
ermaketak



# Gazteentzako

lantegiak maiatzetik  
abendura bitartean

**Udal Gazteria Zerbitzuak** maiatzean hasi eta abendura arte 13 ikastaro edota lantegi antolatuko ditu: sukaldaritza (maiatzak 7, 14, 21 eta 28), txirrindularen mekanika (maiatzak 21), funky dantza (ekainak 13, 15 eta 17), sexualitatea (ekainak 7, 14 eta 21), akrobazia eta malabareak (uztailak 1, 8 eta 15), jendaurrean hitz egiteko teknikak, makilajea, perkusioa, gitarra, artisautza eta abalorioak, papiroflexia, ikasketa teknikak eta drogak (azken 8ak urritik abendura). Ikastaro bakoitzak 5 euro balio du eta izen ematea sakelakoaren bidez, mezu bat *imilduz* edota Gazte Informazio Bulegoan egin daiteke, baina azkar ibili parte hartzeko ikastaro batzuen epea zabalik dago-eta. <sup>m</sup>

Informazio gehiago: 94 491 01 14  
gaztebulegoa@getxo.net



## BAPIRUKU UDALEKU IREKIETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Bizarra Lepoan euskara elkarteak antolatzen dituen Bapiruke udaleku irekietan izena emateko epea zabalik dago ekainaren 10era bitartean. 5-12 urte bitarteko ume getxoztarren artean euskararen erabilera bultzatzeko asmoz antolatzen diren Bapiruke udaleku irekiok Algortan eta Itzubaltzeta/Erromon egingo dira aurten, eta ohi denez hiru txandatan banatuko dira: ekainak 23-30 (55 euro, bazkideentzat 42), uztailak 1-15 (105 euro, bazkideentzat 80) eta uztailak 18-29 (105 euro, bazkideentzat 80).

Harremanetrako: 94 4914357 / 675 713 967

## Fadurako Lanbide Heziketako Institutua

Elektromekanika euskaraz eskainiko dute



Aitzol Barañano, Damaso Azkarate, Guillermo Plata eta Jose Libano

**Uribe Kostan ez dago Lanbide Heziketan euskarazko eskaintzarik eta Fadurako Lanbide Heziketako irakasle Jose Libano, Aitzol Barañano, Damaso Azkarate eta Guillermo Plata hori lortzeko lanean dabilta. Dagoeneko, datorren ikasturteari begira, Automozio zikloko Elektromekanika alorra euskaraz eskaintzea lortu dute.**

—Beraz euskaraz ikasi ahal izango da Faduran?

—Datorren ikasturtean, lehen aldiz institutuan, euskarazko adar bat zabaltzeko asmoa daukagu: Automozio zikloko Elektromekanika arloa. Bazen garaia. Ilusio handiagaz gabilta lanean. Orain dela bi urte azaldu genuen gure asmoa, orain ikasleen artean egitasmoa zabaltzen gabilta, oso ondo hartu dute, eskaria bazegoen. Beste zentro batzuk ezagutzen ditugu eta Lanbide Heziketa zikloetan eta gure arloan ikasketak euskaraz eskaintzeko aukera badago.

—Zeintzuk izan dira oztopoak orain arte?

—Oztoporik nagusiena Uribe Kostan antzinako inertzia, gogogabezia da: ez da egon ohiturarik euskarazko zikloak eskaintzeko. Ikasle asko D eredutik datoz edo gehienak elebidunak dira, eta nolabait esateko Lanbide Heziketako zikloetan prozesua edo eskaintza hori moztu egiten da. Egitasmoa planteatzen

diezunean beti jarrera ezkorra egoten da: matrikularik egongo ete da? ikasleei interesatuko ete zaie? Inertziak bultzatutako jarrera da eta gainditu behar dugu. Bestalde, jendeak uste du Lanbide Heziketako zikloetan euskaraz ikastea oztopo izan daitekeela lan mundurako, arlo teknikoetan euskara traba izan daitekeela lana bilatzeko. Hala pentsatzea benetan ezjakintasuna da, aurreiritzia. Arlo teknikoetan erabiltzen den hizkuntza oso unibertuala da. Esaterako, Gipuzkoan edo Urdulizko Otegi tailerrean langileek euskaraz dihardute, eta ez dago inongo arazorik zeozer teknikoa konpondu behar denean. Ikasgaietarako euskarazko materialen arazoa betikoa da, baina badauzkagu; testuliburuak, apunteak eta beste ikastetxeakaz elkar trukutzen ditugu, liburu batzuk badaude, Elhuyar hiztegi teknikoa...

**“Euskara lan mundurako traba dela pentsatzea, ezjakintasuna da”**

—Eskaintza zabaltzeko asmorik badago?

—Noski, hau bidearen hasiera baino ez da. Datorren ikasturtean Automozioa euskaraz eskainiko dugu, eta Elektronikan ere egongo da aukera. Datorren ikasturteko erronka honi eutsiko diogu eta ikusiko dugu, eskaria badago eta gauzak ondo badoaz akaso A erdua kendu... Ikusiko dugu. <sup>m</sup>

# Getxoarte, sortzaile berrien lorbide

Maiatzaren 20tik 22ra arte gaztearen 50 erakusleiho



Aurten ere Areetako Geltoki plazan paratuko den karpapean egingo da Getxoarte

**Bost urte** beteko ditu aurten herriko Arte Sortu Berrien Areetoak, Getxoartek. “*Urtez urte bertaratutakoen kopuruak gora egin du, baita bertan parte hartzeko artisten eskaerek ere, eta aurkezten diren lanen maila gero eta hobea da*”, ondorioztatu du Kultur Etxean Getxoarteko arduradun den Aitziber Alonsok. Pasadan urtean 5.000 pertsona baino gehiago hurbildu ziren Getxoartera, eta iaz jasotako 140 eskaeren aurrean aurten 184 sortzaileren eskaera jaso dituzte. Getxoarten erakutsiko diren 50 lanak aukeratzeko ardura Txaro Arrazolak (artista), Ana Mujikak

(artista), Jose Angel Lasak (eskultorea eta aurreko biak legez Arte Ederretako irakaslea) eta Javier Riañok (Bilbaoarte fundazioko zuzendaria) eduki dute. Euskal herritarrek dira sortzaile gehienak, 18 bizkaitarrak, eta euren artean eskualdeko ordezkariak ere badaude: Anita Ceballos sopoloztarra eta Arrate Izagirre getxoztarra. Osterantzean, Belgika, Alemania eta Suitzatik ere helduko dira sormen-lanak Getxoartera. Beraz, artista gazteen edota arte sortu berrien arrakastarako lorbide izan daiteke beste behin Getxoarte maiatzaren 20tik 22ra. <sup>m</sup>

## BADATOAZ SAN ISIDRO JIAKI!

Maiatzaren 7an hasiko dira San Isidro jaiak txikien dantza jaialdi bategaz eta besteak beste hurrengo taldeetako txikienek jardungo dute: Korozpi (Legazpi), Agurra (Algorta), Intxartu (Algorta) Aratz (Gorliz), Lamiakoko titiak (Lamiako), eta Itxas Argia (18:00, kiroldegiko frontoian). Hurrengo asteakabuko barikuan eskualdeko Autosekuestro, R13 eta Stropajoren kontzertua egongo da (21:00). Zapatuan I. Xake txapelketa, umeentzako jaialdia (mozorrotuta), txorizada, Itxas Argia eta De Krekel (Holanda) dantza taldeen erakustaldia eta Zei eta Ekin taldeen kontzertua antolatu dituzte. Domekan, osteran, Gastronomía azoka, tortilla lehiaketa, Andres Isasi Musika Eskolako kontzertua, idi probak eta dantzaldia iragarri dituzte.

## GAZTE EGUNA ANTOLATU DU ENBATA KONPARTSAK ERROMON MAIATZAREN 14AN

“*Aisialdi alternatiboa eta gazteen arteko harremanak bultzatzea*” helburu dauzkan Erromo/Itzubaltzetako Gazte Enbata konpartsak 5. urteurrena betetzen du aurten eta ospatzeko Gazte Eguna antolatuko du maiatzaren 14an. Umeentzako jolas, puzgarri eta dantzakaz hasiko da Gazte Eguna (11:00, Ibaiondo kalea). Goizean zehar herriko gazteen ekoizpenak azoka egongo da, ondoren tinbalen doinupean herri-poteoa egingo dute. Herri bazkarian alkatuko dira denak gero (izena emateko Gaztetxean), eta umore-bakarizketak girotuko du bazkalostea. Arratsaldean *Altxorren bila* jokuan lehiatuko dira gazteak, eta baliteke gauetan (oraindik ez dago ziurtatuta) kontzertuak egotea.

RENAULT **ocasión**

# IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. RENAULTen bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

RENAULT  
**BILBO BERRI**  
Bikorra/k, z/g - ALGORTA  
Tel: 94 430 68 81  
Jon Arraspide, 20 - DEUSTO  
Tel: 94 448 39 00



Claude Müller > Leioako patinatzailea

“Patinatzen duzunean barrenak askatu, arazo guztiak atzean utzi eta askatasun sentrazioan murgiltzen zara”


**Bulebarraren** irudi barnean margotu genezake Claude Müller gurpiletan irristatzen. Izan ere, urteak daramatza herriko bulebarrean edo auditorioan patinatzen, berezkoa duen dotoreziaz eta pasealekuko oinezkoen begiradak erakarrit. Suitzarra bada ere aspalditik dago gure artean eta berak dioenez *“ederto moldatuta”*. Hala ere, bere hizkerak agerian uzten du bere jatorria gure herritik iparraldera dagoela.

Hamabi urte zituenean ikasi zuen patinatzen Suitzako izotz pistetan eta ordutik kirol horri lotuta mantendu da. Leioara etorri zenean Artxandako eta Portugaletako izotz pistetan irristatzen zuen, baina hauek ixtean gurpi-

**«Hamabi urte zituenean ikasi zuen patinatzen Müller jaunak Suitzako izotz pistetan»**

letara aldatu zen. *“Oso antzekoak direnez ez nuen inolako arazorik eduki gurpilekin patinatzeke”*. Are gehiago, *“gurpiletan patinatzean askatasun handiagoa daukazu lekua aukeratzeko onduan, ez baitzara pista egokitu behar”*. Clauderi Leioako bulebarrean eta Aldapa auditorioan ibiltzea gustatzen zaio; bertako zorua irristatzeko aproposa ei da. Sasoian egoteko *“astean bitan edo hirutan”* patinatzen du.

Suitzar atsegin hau aspalditik dago gure artean, berak dioenez *“arteak Franco bazegoen”*, eta Euskal Herrira ekarri amodioak ekarri



Sasoian egoteko astean bitan edo hirutan entrenatzen du Claudek

zuen: *“bidaia batean gaur egun nire emaztea dena ezagutu nuen eta bera hemengoa zenez hona etorri nintzen”*.

Askatasun eta oreka kontua ei da patinatzea. *“Ez bakarrik oreka fisikoa, baita, mentala. Barrenak askatu, arazo guztiak atzean utzi eta askatasun sentrazioak hartzen zaitu patinatzen duzunean”*.

Beraz, frogatu beharreko esperientzia. Hori bai, kontuz erorikoekin. Claude Müllerrek gomendio batzuk eman dizkigu kolpeetatik

babesteko. *“Eskumuturrekoak, belaunetakoak edo ukondokoak eraman daitezke hezurrak babesteko. Nire ustez garrantzitsuenak eskumuturrekoa da”*. Hala ere, arrisku handirik ez du ikusten kirol hau praktikatzerakoan. Dena dela, sustoren bat hartutakoa da Müller jaunak: *“Suitzara egiten ditudan bidaietako batean izotz gainean irristatzera joan nintzenean, gurpiletara ohituta, balaztatzeko keinua egin eta patinaren punta izotzean sartuta kolpe galanta hartu nuen”*. m

# Gazterpe jaia

Musika eta margoa protagonista izango dira gazteentzako antolatutako jaietan



Jaiaren kartela

**Leioako** Aterpe Gazte Bulegoak PopRock eta Margolari Gazteen lehiaketak jai giroan ospatzeko Gazterpe jaia antolatu du. Berziki gazteei begira antolatutako festa hau maiatzaren 13, 14 eta 15ean egingo da eta bertan aipatu lehiaketetako finalistek parte hartuko dute. Horrela, ostiralean eta larunbatean Leioako PopRock V Lehiaketako azken txanpan dauden musika taldeek nor baino nor jardungo dute. Barikua musika gogorraren txanda izango da; metal musikan finalera heldu diren taldeak ikusi ahal izango dira Kandelazubieta Kiroldegian gaueko 9etatik aurrera. Eta zapatuan, musika lasaixeagoa gogoko dutenentzat, poprock alorreko finalisten kantuak entzungo dira. Gogoratu irabazleak 1.800

euroko sariaz gain Leioako herriko jaietan joko duela ospeko talde baten aurretik. Igandean margolariek herriko kaleak hartuko dituzte Margolari Gazteen VIII. Sarian parte hartzeko. Goizeko 8:00etatik 15:00ak arte Leioako herria gaitzat hartuta euren lanak margoztuko dituzte aukeratzaren duten herriko edozein lekutan. Arratsaldeko 19:00etan irabazlearen izena ezagutzera emango dute KulturLeioan. Irabazleak diploma eta 810 euroko saria eskuratuko du. Halaber, asteburuan ekintza hauetara hurbiltzen den jendeak ere sariren bat lor dezake. Izan ere, egun bakoitzean zozketatuko da bi pertsonentzako asteburupasa Euskal Herriko nekazalturismo batean. m

## PEÑA LASTRARA IRTEERA ETA TALDEAREN EGUNA MAIATZAREN 17AN

Leioa Mendi Taldeak Taldearen Eguna datorren maiatzaren 17an ospatuko du Burgos aldean. Urtero bezala egun bat aukeratzen da Talde Eguna ospatu, sariak banatu eta jai giroan egunpasa egiteko. Goiz partean Peña Lastra, 695 metroko tontorra, igoko dute eta eguerdian bazkaria ospakizuna girotzeko. Izen ematea taldearen egoitzan (Sabino Arana kalea 77, Sakoneta Kiroldegia) edo 689 721 917 telefonora deituta astelehenetan eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara.

## PINOSOLOKO ETXEBIZITZEN ZOZKETA ATZERATU DA

Etxebizitza berrien fatxadaren itxura izan da Udalak proiektua atzera botatzeko arrazoitutakoa. Udaleko teknikarien arabera ez zen batere egokia etxaurrearen irudia eta horrenbestez udalak proiektua atzera bota zuen. Beraz, urte honetako lehenengo lauhilabetekoan zozketatzekoak ziren Babes Ofizialeko Etxebizitzak eraikitze prozesua beranduago hasiko denez zozketa data ere geroko utzi dute.

## PINUETAKO VII. NEKAZARITZA AZOKA HILAREN 8AN

Nekazari Azoketan ohikoa denez lurrak emandako produktuak eta tradizioz euskaldunok landutako jakiak ikusteko, eta batez ere, dastatzeko parada Pinuetako VII. Edizioan. Euskal pastela, barazkiak, ogia, sagardoa, txakolina, gasta, ezti, eta baserriko giroa dira protagonista egun honetan. Ohitura zaharretan girotzeko ohiko lanbideak ere gogoratuko dituzte: otzaragintzan, ardi mutiltzea eta hari ardaztea, animalia ferraketa... Azoka martxoaren 8an izango da Cervantes Plazan goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:00ak arte.



**ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK**

**egiten ditugu**

**e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)**

**Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83**

**udondo**

**taberna**

**eguneko menua eta afariak**

Lehendakari Agirre,2

T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07

e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

**94 491 13 37**



# Kanpomartxo 2005

euri guztien gaineratik eta **trumoi guztien azpitik**

Goi-Alde eta Trabudu dantza taldeek eguzkitan ekin zioten goizeko dantza saioari, baina bertsolariak lanean hasi zirenerako zeruari euria zerion eta euritan joan zen eguna. Bazkalorduan, 250 lagun inguru bildu ziren eskoletako aterpean Luis M. Prego eta lagunek egindako paella erraldoia edo koadrilakoek prestatutakoa jateko. Bertan kantuak ere egon ziren, trumoi hotsek lagunduta. Ostean, euriak euri, erromeria nagusi Erandioko Landan Tapia eta Leturiarekin. Jende asko hantxe mela-mela eginda, jira eta bira. Beste batzuk txosna ingurutik zirkinik egin barik, zintzurra bustitzen. Biharamunean izango zen hotzeriak eta ajeak jotakorik!



## Dantzari Eguna Erandion

maiatzaren 15ean **Goi-Alde** dantza taldearen **40. urteurrena** ospatzeko



Sorkunde Goikouria dantza taldeko lehendakaria

**Bizkaiko** Dantzarien Biltzarrak antolatzen duen Dantzari Eguna aurten Erandio Landako Arteaga futbol zelaian egingo dute, Goi-Alde dantza taldeak hala eskatuta eta taldearen 40. urteurreneko ospakizunekin bat eginez. Izan ere, Jose Luis Intxaurbek sortu zuen Goi-Alde dantza taldea eta 1965eko abuztuaren 15ean, Andra Mari jaietan, agertu zen lehenengo aldiz jende aurrean, Sorkunde Goikouria taldeko lehendakariak adierazi digunez. Geroztik, 40 urteko ibilbide oparoa eduki du euskal dantzak ikasten eta plazetan erakusten.

Dantzari Egunean berritasunik izango ote den galdetuta, hala erantzun digu Sorkundek: *“Dantzari Eguna urtero eskualde batean egiten da eta laugarren aldia izango da Txorierrin egiten dena. Beti jarraitzen du eskema berbera, baina,*

### Egitaraua

- **Maiatzak 14:** Goi-Alde, Trabudu eta Uztargi Erandioko dantza taldeek dantza erakustaldia egingo dute Euskadiko plazan.
- **Maiatzak 15:** 11:30ean, dantza erakustaldia izango da Arteaga futbol zelaian (80 dantza talde inguru), 17:00etan harri-zulataileak (Erandioko herri kiroletako Ortzi kirol taldea) probalekuan, eta erromeria landan.

### PILAZOAK, JOLASAK ETA BERBENAK: OSTEGUNETAN EUSKARAZ

Sirimiri aisilekuak eskaintza berria egingo die herriko neska-mutil gaztetxoei ostegunetan: euskarazko ekitaldiak. Udaletxe ondoko azokaren eraikinean kokatuta dagoen ludotekan nahiz kalean egingo dituzte jarduerak parte hartu nahi duten guztientzat.

Umeen eta gazteen aisialdian euskararen aldeko giroa sustatzea, motibazioa lantzea eta, bide horretatik, erabilera areagotzea ditu helburu Euskara Zerbitzuak bideratutako ekimen honek.

Egitaraua:

- Maiatzaren 12an, Azkona-Kiki, Koko eta Moko pailazoen ikuskizuna ludotekan.
- Ekainaren 9an, neska-mutilentzako herri kirolak Urpe taldearekin udaletxeko plazan.
- Uztailaren 14an, *Kroketa zopa* berbena Auskalo taldearekin.

### NAIROBITARRAK DIAPORAMA

Berbots Erandion Euskaraz elkarteak Josu Iztueta bidaiaria gonbidatu du *Nairobi*tarak diaporama aurkezteko datorren maiatzaren 19an, eguna, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean. Emanaldia 20:00etan hasiko da.

### BERTSO-TRAMA MAIATZAREN 20AN ASTRABUDUAN

Jon Maia, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean arituko dira datorren barikuan, maiatzak 20, Josu Goikoetxearen esanetara. Erandioko Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatutako ekitaldia arratsaldeko 19:30ean hasiko da.

Jon Maia eta Igor Elortza





SOPEL BUS MARTXAN  
EGONGO DA BERRIRO  
ERE UDA GARAIAN

Sopelanako erdialdea eta kanpoaldeko auzoak eta hondartzak lotzen zituen Sopelbus zerbitzua negu partean kentzea erabaki zuten udal ardurarek. Alabaina, uda garaian berriro ere martxan ipintzea onartu dute, aurreko urteko erabilera ona kontuan izanda. Esan legez, Sopelbus autobus zerbitzuak herriko erdialdea eta inguruetako auzoen artean egingo du ibilbidea, eta metro geltokiak eta hondartzetarako bidea ere egingo du. Ekaina aldean hasiko da martxan eta aurretik Creditrans txartelaren bidez egingo da  bidaia bakoitzaren ordainketa (50 zentimo). Bestalde, oposizioko alderdi batzuek Sopelbusen kudeaketa enpresa pribatu baten esku uztea ez ei dute ontzat eman.

Sopelbusen iazko irudi bat



HONDARTZAKO WEB  
KAMERA EKAINERAKO  
BERRIRO MARTXAN

Hondartzako web kamera berriro martxan ipintzeko asmoa dauka Sopelanako Udalak. Kamera ezezagun batzuek errifle batez tiro eginez  apurtu zutela jakinarazi digute Udaletik; hala ere, udaldia hasten denerako, ekaina erdialde inguruan, konponduta egongo da eta martxan jarriko ei dute. Web kameraren bitartez Atxabiribilgo hondartza ikusteko aukera dago Udaleko web orrialdetik.

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

TAOa ezarriko da herrian  
Oposizioko alderdiak kontra azaldu dira



TAOa ez ordaintzeagatik isunak 6 eta 10 euro artekoak izango dira

**Trafikoaren** eta Aparkamenduaren Ordenemendu (TAO) sistema herri osoan ipiniko du Sopelanako Udalak. Egitasmoa EAJ eta EA alderdien botoakaz eroan da aurrera, eta oposizioko alderdiek ezezko borobila eman dute (SA, EB-Berdeak, eta PP; PSE-EE ez zen egon).

Hiru gunetan ezarriko dute TAOa, eta aparkatzeagatik ordaindu beharrekoaren arabera gune bakoitzak kolore bat edukiko du: gune urdina (herri erdialdean, Larrabasterako leku batzuetan eta Arrietarako urbanizazioan), gune berdea (Urgixieta, Larrabasterako metro geltokiaren inguruan) eta gune horia (hondartzetako

aparkalekuetan, uda garaian baino ez). Zirkulazio zerga Sopelanako Udalean ordaintzen duten herritarrentzat urte osorako TAO zonako egoiliar-txartel berezia egongo da (2005ean 20 euro balio izango du, ostean 30 euro). TAO guneetan aparkatu eta ez ordaintzeagatik 6 (urdiranean) eta 10 euroko (berdean eta horian) isunak ipiniko dira.

Udal arduradunek azaldukoaren arabera, *“Udalak TAOagaz ez dauka inarabazi asmorik, gastu eta inarabazien arteko harremana 0 izatea gura du”*. Bestalde, garabia laster martxan jarriko dutela adierazi dute. <sup>m</sup>

Pablo Calvo eta Egoitz Lataillade > bideo egileak  
Umutiko eta eskualdeko olatuak batzen ditu  
bodyboardaren gaineko Txinpart filmak



Informazio gehiago: [www.txinpart.com](http://www.txinpart.com) eta [www.aibodyboard.com](http://www.aibodyboard.com)

**Etxekoa** izan behar zuen. Bertoko musikagaz dantzan, geure olatuak eta horietan dabiltzan geure zaldun bodyboardak ezagutaraztea zen asmoa. Aukeratutako izena ere bazen etxekoa: *Txinpart*. Helburu hori zeukaten Egoitz Lataillade sopeloztarrak eta Pablo Calvo bilbotarrak orain dela urte bat bodyboardaren inguruan filma egiten hasi zirenean. Urtea luze joan da, eta batak ala besteak urrutiko olatuak hartzeko aukera eduki dute, olatuak eta irudiak. Horregatik *Txinpart*ek geure zein urrutiko hondartzak batu ditu, bertako bodyboard handiak zein urruneko entzutetsuak. Filmaren inguruan zera diosku Calvok: *“kirol hau bultzatzeko eta sustatzeko egin dugu, eta bide batez hemen ere maila handiko bodyboardak badauzkagula erakusteko; bestalde, orain arte bodyboardeko bideo gehienak kanpotarrak ziren, urrutiko olatuak... eta gurean ere badira olatu onak eta jendeak ikus dezake hemen ere aukera bada-*

*goela, gainera bideoetatik ikasi ahal izateko lekuak hurbilekoak izan dira”*. La central (Lemoiz), Ereaga edota Sopelanako hondartzak agertzen dira bideoan, Sintra (Portugal), Kanariak edota Hawaikoakaz batera. Eta David Perez, Jon Ander Bengoetxea, Aritz Larrinaga eta abarren alboan Rui Ferreira, Stewart, edota Hanton lako bodyboardak agertzen dira. Calvok dioenez *“35 minutu inauten du filmak, kredituakaz ordu eta piku”*. Musikari dagokionez, Maple, PN, Kerobia, Vodoo, Flyin’ Freak, Surfin Kaos, Ilion eta Kudairen kantak entzun daitezke.

**Uztailen 3**esenta aldizkariagaz 3*Sesenta* aldizkariagaz banatuko da uztailen *Txinpart*. Baliteke egileek beraiek salgai jartzea irailean, banaketagatik ez dutelako irabazirik jasoko, esponsorrengandik baino. Amaitzeko, datorren udarako beste bideo bat egiteko asmoa daukate. <sup>m</sup>

LAI AK  
Taberna

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94.6760328

ANDER  
DEVNA  
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email.: [sopela@ikastola.net](mailto:sopela@ikastola.net)

JATETXE BEGETARIANO A

- Eguneko menuak
- Asteburu etan menu bereziak

Sertutxa 4, Sopela  
Telf. erreserbak: 645 732 991

4 bide  
pinturak

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO



UDALAK IPARRALDEAN  
ANTOLATUKO DITU  
UDALEKUAK

Berangoko Udalak Añamendi aterpetxean (Bidarray, Baigorriko eskualdean) antolatuko ditu aurten udalekuak. Aurreko urteetako Gazteuskaltegien arrakasta kontuan izanda, aste bateko egonaldia prestatu du Udalak Iparraldean. Ekainaren 27tik uztailaren 2ra egingo dira udalekuok eta 12-16 urte bitarteko berangoztar euskaldunei zuzenduta daude. Gaxt Klubeko kideentzat 90 euroko prezioa dauka (dena barne) eta besteentzat 100 eurokoa. Euskal dantzak, jolasak, kirola, mitologia, Biarritzera irteera... aurreikusten dira udalekuetan, den-dena euskaraz. Izena emateko epea maiatzaren 14an amaituko da.

Izena emateko: 94 668 21 43



GURASOENTZAKO  
EUSKAL JOLASAK  
LANTEGIA

Kultur Jardunaldien barruan gurasoentzako Euskal Jolasak lantegia emango dute ekainaren 13tik 16ra (17:00-19:00). Hala ere, parte hartu gura duenak maiatzaren 14a baino lehen eman beharko du izena Kultur Etxean, Lantegia doakoa eta elebiduna izango da, guraso euskaldunek haurtzaroko jolasak euskaraz ikasteko aukera izango dute eta seme-alabakaz harremana euskalduntzeko tresna baliagarria izan daiteke.

Kultur Jardunaldiak bi hilabetez  
Hamaika koloretako ekintzak gogotik



Anje Duhaldek hilaren 20an joko du. Informazio gehiago: [www.berango.net](http://www.berango.net)

**Maiatzeko** lehenengo barikuan hasi eta ekaineko azken domekara arte Berangoko Udalak, herriko hainbat talderen eta elkarteren laguntzagaz, Kultur Jardunaldiak antolatuko ditu. Hamaika zaporeko ekitaldiak prestatu dituzte: kirola, antzerkia, musika, erakusketak, dantza... Maiatzeko egitaraua doakizue ostean, ekainekoaren berri emateko aukera gero egongo da-eta.

Eskolaz kanpoko jardueren emanaldiak emango die hasiera Jardunaldiei maiatzaren 6an, eta iluntzean emakumezkoen sokatira eta trontza erakustaldia egongo da. Biharamunean eskolarteko txirrindularitza lasterketa antolatu dute. Hilaren 20an pailazoakaz barre

egiteko aukera egongo da, Ignacio Pascual futbol txapelketako partidak ikusi ahal izango dira; gaueko hitzordua dantzaldiagaz eta diskotekagaz izango da. Hurrengo egunean txirrindularitza eta krosa egongo dira goizean; arratsaldean ACADAE taldearen ekimenez antzerkiagaz gozatzeko abagunea; eta azkenik, Anje Duhalderen eta Kukuma taldearen kontzertuek emango diote amaiera egunari. Maiatzaren 22ko egun osoa haur parkeak eta lantegi kimikoez hartuko dute. Eskolaz kanpoko jardueren erakusketa hilaren 23tik 27ra egongo da ikusgai. Amaitzeko, hilaren 27an pilota partidakaz eta *Pinotxo* antzerki lanagaz har daiteke gozamina. <sup>m</sup>

Euskoman Triatloi Elkarte

Orain dela 2 urte sortu zen taldea eta gaur 18 bat triatloilari dabilta, andrezko bakarra



Argazkian, Euskoman batzuk. Informazio gehiago: [www.euskoman.com](http://www.euskoman.com)

**Bi urte** bete dira aurten Plentzia aldean Euskoman Triatloi Elkarte sortu zenetik. Taldeko kide Xabi Gomezek esan legez, *“Euskoman izenak apur bat harrotxua emoten du, baina ironman berbagaz jolasteko ipini genuen”*. 18 bat kirolarik dihardute taldean, andrezko bakarra, eta ia gehienak distantzia luzeetan lehiatzen dira, Ironmanetan. Bizkaitarrak dira denak, gure eskualdekoak 3; horren albotik, Plentziako talde legez zergatik agertzen diren itaunduta zera diosku Gomezek *“kontua izan zen Holandara joan ginela Ironman bat egitera, bakoitza bere taldeagaz, eta talde bat sortzeko ideia sortu zen han; gero dirua batu behar zela-eta bakoitzak bere alkateari proposatu zion, eta Plentziako alkateak baiezkkoa emon zigun, horregatik sortu dugu han taldea eta askotan joaten garelako hara entrenatzen, uger egitera”*. Bestelako diru-iturria Plentziako jaietan ipintzen duten txosna da, eta horregaz batera Auvol etxeak bizikletako arropak ematen dizkie. <sup>m</sup>

Iazko denboraldiari begira, Euskoman taldeak bi ekitaldi antolatu zituen: I. Euskadiko Aquatloi txapelketa eta Durangoko Duatloia. Aurten ere Plentzian Aquatloia antolatzeko asmoa daukate uztaila aldean, Madalenetan. Gomezen esanetan pasadan denboraldia ez zen lorpen handikoa izan: *“Normala izan zen, batzuok ez gendun asko parte hartu, badakizu gauza bat dala, bestea dala, beharra, gehienak nagusitsuak gara... ez gara profesionalak, baina aurten nik uste hobeto joango dala gehiago garelako, lehenengo urtean 12 ginen”*.

Euskomanak Mundialean

Gomez bera eta Richard Pastor plentziarra Danimarkako Ironman Mundialean lehiatuko dira, beste batzuk Lanzarote Ironmanetan eta beste batzuk Rotheoan (Alemania). Hori bai, Euskadiko zirkuitua eta Gorlizko Badia Triatloia (maiatzak 21) alde batera utzi barik. <sup>m</sup>



TXIBERRI  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASTARTENA




URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

krimea

Negubide 13  
Tel. 94 463 61 82

AREETA



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

[basalbobaserria@yahoo.com](mailto:basalbobaserria@yahoo.com)

## Basurto

Algorta S.L.

altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



HIRU KIROL EKITALDI  
GARRANTZITSU  
MAIATZEAN GORLIZEN

Garrantzizko hiru kirol ekitaldi hartuko ditu Gorlizek hil honetan. Hiruretan lehenengoa Euskal Herriko Mountain Bike txapelketa (jaisiera arloan) izango da, maiatzaren 7an 16:00etan, eta horregaz batera mountain bike eskolen arteko topaketa ere egingo da. Bigarren ekitaldia III. Gorlizko Badia Triatloia da, hilaren 21an egingo dena 17:00etan. Azkenik, hurrengo egunean Gorlizko Txirrindularitza saria antolatu dute, goizeko 10:00etan ipini dute hitzordua.

KOSKAKIDE IZATEKO  
KAPAINA ABIAN JARRI DU  
IRRATI LIBREAK

Uribe Kostako uhinetan hedatzen den Koska Irrati libreak laguntza-deia luzatu du, azaldutakoaren arabera: “Autofinantzaketak (txosnak, kontzertuak, eta jaiak) orain arte ekonomikoki aurrera egiteko balio izan digu, baina nolabaiteko Irrati potente bat nahi badugu eskualdean, ez dugu inolaz ere nahikoa izango; horregaitik zuoi, edozein modutara koska bizitzan dozuenoi, laguntzeko deia zabaltzen dizuegu”. Apirilaren 29tik aurrera Koskakide kanpaina ipini dute martxan eta 600 koskakide lortzea dute helburu. Urteko kuota 12 euroan ezarri dute, beraz, koskakide izan gura badozu eta irrati libreari zure laguntza eskaini hurrengo helbide honetara mezu bat imilduz egin zenezake:

koskairratia@koskairratia.com

GORLIZ ETA PLENTZIA

Euskal Jaia antolatuko dute hilaren 20an



Goizean Plentzian egingo dira ekitaldiak eta arratsaldean sagardotegia ipiniko dute Gorlizen

**Gorlizko eta Plentziako** Udalek Euskal Jaia antolatu dute maiatzaren 20an, barikua. Goiz-eguerdiko ekitaldiak Plentzian egingo dira eta arratsaldekoak Gorlizen.

Plentziako jarduerak umeei eta gazteei begira prestatu dituzte: 10:30ean ipini dute hitzordua Udaletxe aurrean eta goizean zehar lantegiak eta jolasak egongo dira, 13:00ak aldera otartekoa jango dituzte haurrek plaza-ko arkupetan, *Betizu Izar artean* ikuskizuna hasten denerako (13:30, Astillero plaza)

denak bazkalduta egoteko. Gazteentzako zita 14:30ean izango da Plentziako Institutuan, *Euskara sencilloaren manifestoa* an- tzerki lana eskainiko dute-eta Biko Teatro taldekoek.

Halaber, helduei zuzenduta egongo di- ra Gorlizko ekintzak. Sagardotegia paratu- ko dute Iberre plazan (19:00-21:00), sagar- doak berotuko du giroa eta trikitilari-ek, bertsolariek eta erromeriak alaitu dituzte bertaratzen direnak. m

Mai. 8 - 22

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37 • Fax.: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

GETXO

- **Getxoarte.** Arte Sortu Berrien Aretoa. Maiatzak 20-22. 11:00-14:00 eta 17:00-21:30. Sarrera: 2 euro.
- **Arteskolako lanak.** Algortako kultur etxea. Maiatzaren 14ra arte.
- **Patxi Bengoaren lanak.** Erromoko kultur etxea. Maiatzak 17-28.

GORLIZ

- **Oporrak.** Liburu-erakusketa. Udal liburutegia. Maiatzaren 31ra arte.

LEIOA

- **Umore Azoka: Kaleko Arteak.** Kartelak, eskuko propaganda, eta Euskadiko konpainiek antzeztutako kaleko arteko jantziak eta elementu adierazgarriak. Kultur Leioako Erakusketa Aretoa. Maiatzak 16-ekainak 5.

URDULIZ

- **Keramika.** Erakustaretoan. Maiatzaren 21era arte.

ZINEMA

GETXO

- **La ley de Herodes.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Maiatzak 11, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.
- **La vida es un milagro.** Cinema Paradiso. Azpitteludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Maiatzak 13, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.
- **Cosas que hacen que la vida valga la pena.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Maiatzak 18, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.
- **La feria de las vanidades.** Cinema Paradiso. Azpitteludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Maiatzak 20, barikua. 22:00.
- **Heffalump.** Haur zinea euskaraz. Getxo Antzokia. Maiatzak 22,

Ramon Agirre aktorea eta Joserra Senperena musikaria

► **Antzerkia**

**7 gezur txiki, umorea eta musika taula gainean**

Ramon Agirre aktoreak eta Joserra Senperena musikariak taularatzen dute *7 gezur txiki* ikuskizuna. Umorezko bakarriketa eta musika uztartzen ditu emanaldiak: Agirrerren pertsonaiaren tonu zirikatzaileak eta ironikoak Senperenaren baitse, pop, blues... doinuakaz dantzatuko du. “Gezuraren apologia” egiten du ikuskizunak egileen esanetan, gezuraren inguruan dabilelako; hala ere, “ez gabiltza gezurretan” diote. Beraz, gezuraren alde desberdinak egongo dira ikusgai Getxo Antzokiko oholtza gainean. Sarrerak 8,50 euro balio du (6,50 euro aldeaz aurretik erosiz gero), eta dagoeneko salgai daude.

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** Maiatzak 13, barikua • **Ordua:** 20:00

domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.

- **En el Mundo a cada rato.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Maiatzak 25, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

LEIOA

- **Largo domingo de noviazgo.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Maiatzak 15 eta 16. 20:00. Sarrera: 4 euro.
- **Last orders.** Perseo zineforuma. Zine ingelesari eskainitako zikloaren barruan. Kultur Leioa. Maiatzak 17, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

- **Million dollar baby.** Zine komertziala. Kultur Leioa. Maiatzak 21, 19:00 eta 22:00. Maiatzak 22 eta 23, 20:00.
- **Zientzia Fikzioa.** Haur Zinea euskaraz. Kultur Leioa. Maiatzak 22, domeka. 12:00 eta 17:00.
- **El secreto de Vera Drake.** Perseo zineforuma. Zine ingelesari eskainitako zikloan. Kultur Leioa. Maiatzak 24, martitzena. 20:00.

PLENTZIA

- **El Diario de Noa.** Helduentzako

zinea. Erakusgela. Maiatzak 20, barikua. 22:00.

- **El club de los villanos.** Haur zinea. Erakusgela. Maiatzak 21, zapatua. 18:00.
- **Mar Adentro.** Helduentzako zinea. Erakusgela. Maiatzak 27, barikua. 22:00.
- **Shrek 2.** Gazteentzako zinea. Erakusgela. Maiatzak28, zapatua. 18:00.

ANTZERKIA

GETXO

- **Alas de Luna.** Galatea taldea. Olerki eta musika errezitaldia. Villamonteko kultur Etxea. Maiatzak 20, barikua. 20:00.

LEIOA

- **La Nona.** Producciones Cahivache. Kultur Leioa. Maiatzak 13, barikua. 20:30. Sarrera:10 euro.
- **Alai.** Haur antzerkia euskaraz. Panta Rhei konpainia. Kultur Leioa. Maiatzak 15, domeka. 12:00. Sarrera: 3 euro.

GORLIZ

- **Peio Añorga ipuin kontalaria.** Udal Erakusgela. Maiatzak 21, zapatua. 18:30.

BERANGO

- **Tres sainetes.** ACADAE taldea. Kultur Etxea. Maiatzak 21, zapatua. 19:30.

MUSIKA

GETXO

- **Galina Vishnevskaya Antzerki Eskolako Umeak.** Haur Opera. Getxo Antzokia. Maiatzak 15, domeka. 18:00. Sarrerak: 3-6 euro.

BERANGO

- **Kukuma eta Anje Duhalde.** Eskolako karpa. Maiatzak 21, zapatua. 22:00.

# aldai

**TAPIZTEGIA**

**DEKORAZIOA**

**ERAKUSKETA**

**ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@euskalnet.net](mailto:vasa@euskalnet.net)

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



[albuma]



# Haize-orratzak

Lurrazalarekiko mugitzen den aire-masa da haizea Hiztegi Entziklopedikoaren arabera. Baina euskaraz “haizea” berba zeozer egitera bultzatzen gaituena adierazteko ere erabiltzen da; horregatik, esaterako, “ez dakit zer haizek jo dion horrelako astakeriak egiteko” erako esamoldeak baliatzen ditugu gure hizkuntzan. Haizeak nondik jotzen duen jakiteko, hain zuzen ere, asmatu ziren haize-orratzak aspaldian. Hauxek dituzue eskualdean topatu ditugun batzuk.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Mecanica de la Peña, garai batean euskal ekonomiaren motore eta Urdulizko ikur, hutsik dago orain bizpahiru urtetik. Denok daukazue enpresaren desagerpenaren berri, noski, eta beharbada gehienok han lan egin zuen nonor ezagutzen duzue, edo lan egin zuen baten lagun bat. Kontuak kontu, ingeniaritza-enpresa albiste bihurtu da berriro ere azken asteetan, gazte talde batek beraren eraikin abandonatuetako bat okupatu duelako, Sopelana eta Urduliz arteko muga-mugan. Horren berri emongo dizuegu oraingoan; bide batez, Bizkaiko Foru Aldundiari -Mecanica zenaren eraikinen ugazabari, alegia- ondasun horiekiko dauzkan asmoez itaundu diogu.

# Mecanica de la Peña

## Gaztetxe baten historia laburra

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

### Historia apur bat

Mecanica de la Peña, ekipamendu-ondasunekin lan egiten zuen ingeniaritza-enpresa, 1940an sortu zen. Mundu osoko proiektutan esku hartu zuen (Europa, AEB, Hegoamerika, Ekialde Urruna...), eta 750 behargin ere eduki zituen, beraren desagerpena eragin zuen krisialdia baino lehenago. Gainera, beste 2.500 lagunentzako lana sortzen zuen zeharka, Euskal Herrian nahiz Espainiako estatuan. 2002an, enpresako agintariek porrot-egoera aldarrikatu zuten.



**Uribe Kostako** ikonorik ezagunenetako bat, beharbada, Mecanica de la Peña enpresaren etxeorratza da, Urdulizen. Denok dakizue, ordea, garai batean langile mordoari jana emon zion eta Urdulizko ikur bihurtu zen enpresa hori desagertuta dagoela, orain sei urte hasitako krisialdi latz baten ondorioz, eta tartean beharginen borroka eta protesta mordoa egonda.

Azken bizpahiru urteotan hutsik egon dira behinola Mecanica de la Peñarenak izandako eraikinak. Batzuk, izan ere, oso egoera kaxkarrean daude, guk geuk, orain gitxi bertara egindako bisitan, begiztatu ahal izan dugunez. Haraino joatearen “errua” Sopelako Gazte Asanbladak, -Sopelana eta Urdulizko gazteak elkartzen

tera, edo arinago, Ertzaintza etorri zen, eta han geunden guztion identifikazioa eskatu zuen”. Ez zituzten Sopelako Gazte Asanbladako kideak bota eta gazteak hantxe geratu ziren, gaztetxe bat sortzeko lehen pausuak emoten. Bataiatu eta guzti egin zuten gaztetxe hori: Igeltsera, Mecanica de la Peñaren izandakoaren hondarrak dau-den industria-poligonoaren izen bera.

**Bizkaiko Foru Aldundiarena da** Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundia da Mecanica de la Peñaren ondasunen ugazaba. Bertako iturriek adierazi digutenez, 1997ko abenduan eskuratu zituzten lur-sailak zein eraikinak, desagertutako enpresak zeukan tributuzorren ordain mo-

### «Gazteei hamar eguneko epea emon zitzaien eraikin zaharretik joateko»

dituen taldeak- dauka, joan den apirilaren 16an Urduliz eta Sopelana arteko pabilioi abandonatuetako bulego zaharrak okupatu zituzten-eta (gorago aipatutako etxeorratzetik 300en bat metrora, Sopelarrantza joanez), gaztetxe bat sortzeko asmoz.

Zabaldutik zuten agiri baten bidez, gazteek adierazi zuten 60 kide baino gehiagok parte hartu zutela okupazioan. Eurretako batek UKri esan zionez, *“handik ordube-*

dura. Sopelako Gazte Asanbladak hainbat bulego okupatu zituela jakinda, arin mugitu da Aldundia. Azkenik, apirilaren 25ean idatzi bat emon zieten bertan zegoen gazteei -orrialdeotan ikus dezake-zuen bera-, eraikina berreskuratzeko prozesua irekita zegoela adieraziz. *“Hamar egun emon dizkigute ospe egiteko”,* diosku Gazte Asanbladako kide batek. Denbora tarte horretan, “okupek” euren ekintzaren



Argazkiotik, gaur egun Mecanica de la Peña duen itxura eta gazteek atondu duten gela bat. Behean, gazteek Aldunditik jaso duten idazkia

zergatiak idatziz azaltzeko aukera daukate, Foru Aldundiak Ondare Zerbitzuko bu-ruak sinatutako agirian adierazten dienez. Hala ere, gazteek ez dute uste horrek ezertarako balioko liekeenik. Sopelako Gazte Asanbladakoek Mecanica de la Pe-ñaren eraikin zaharretatik alde egiteko

rean segitu dute, Igeltsera gaztetxe jaio berrian betiko geratzekoak balira bezala. Egoitza txukuntzeaz gainera, hainbat lan-tegi, erakusketa eta kontzertu antolatu di-tuzte. Zuek hau jasotzen duzuenerako, baina, hori guztia historia hutsa izango da seguruenik, eta Bizkaiko Foru Aldundia

### «Aldundiak aurtan ipiniko du Mecanica de la Peña enkante publikoan»

daukaten hamar eguneko epea aldizkari hau kaleratzeko momentuan amaituko da gitxi gorabehera. Ez dakigu, beraz, zer ger-tatu den. Gazteek ez dute, egin dizkiguten adierazpenetan, bertan luzeegi egoteko itxaropenik agertu, baina hala ere beha-

berriro izango da enpresaren ugazaba (legea eskuan, behin ere ez dio utzi hala izateari). Zer gertatuko da ondoren? Laster jakingo dugu hori. Antza, Aldundiak esan digunez, aurtan Mecanica izandakoa enkante publi-koan ipintzeko asmoa daukate. m





## Txirrindulan

Juan Luis Markaida

Gaur egun nekez ikus daitekeen irudi paregabe hau helarazi digu Juan Luis Markaida argazkilari handiak. Kontrastez betetako argazkia duzue: gizon aberatsa BH txirrindula merkean, bidea jarraitu barik errepidea zeharkatzen...



ERANDIO, 1988



[berbetan]

Getxoztarra, 32 urte, finantza-zuzendaria lanbidez. Gonzalo Iribarnegarayk zaletasun bi dauzka batez ere: bidaiak egitea eta idaztea. Sarritan, gainera, biak uztartu ditu, eta hala, egindako bidaien gaineko liburu bat *-Un mes en Botswana-* eta hamaikatxo erreportaje argitaratu ditu, horietako asko eta asko aldizkari honetan bertan. Ahal duen bakoitzean oso bestelako munduetara egiten du ihes; bidaiak eginez sarritan, eta idatziz sarriagotan. Orain gitxi, *Tiempos turbulentos* eleberri historikoa plazaratu du. Espazioan bidaiatzea nahiko ez balitz bezala-edo, beste garai batzuetara ere joatea gustatzen zaio Iribarnegarayri. Erdi Arora eroan gura gaitu getxoztar idazle-bidaiariak, berak hainbestetan bertatik bertara ikusi duen Erdi Aro horretara. Izan ere, Gonzalo Iribarnegarayk, motxila hartzen duenean, gure ustezko zibilizazio honek oraindik kutsatu ez dituen lekuak dauzka gustuko.

# Gonzalo Iribarnegaray

**Bidaiak espazioan, bidaiak denboran**

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Bidaiari profesionala zara, edo hori lar esatea da?

—Zaletua baino ez, esango nuke. Hori bai, erabateko zaletasuna daukat, sakona. Bidaia asko egiten dut, eta neure atsegine-rako egiten dut. Leku alternatiboetara joa-ten ahalegintzen naiz, ez turista arruntak joaten direnetara.

—Zelan erabakitzen du lanbide arrunta daukan pertsona arrunt batek bidaiak egiten hasiko dela?

—Hara, bidaiatzen dugunok ere arruntak gara, ezta? Baina bai, gitxi gorabehera zuk diozuna da. Urte asko dira bidaienganako zaletasuna daukadala; benetan merezi duten lekuak topatzen hasi nintzen, eta amaierabako katean sartu nintzen. Azken urteotan- urte asko dagoeneko- ihes egin dut ahal izan dudan bakoitzean, eta beti gozatuz.

—Eta zelan antolatzen duzu zeure burua? Baimenak beharko dituzu lanean, ezta?

—Bai. Urteotan sarritan aldatu dut lanbi-

dea, eta aldaketa horietan zerikusi handia eduki du lanbide berrian askatasunez jar-  
dun ahal izateak. Emoten du finantza zuzendari batek lanari oso lotuta egon behar duela, baina nik lortu egin dut aska-  
tasun hori. Enpresako atal baten ardura daukat eta erantzukizun hori betetzen dut, baina ez ordutegi zurrinakaz. Horrek au-  
kera emoten dit oporrak bestelako modu batez hartzeko. Behar egiteko garaian be-

**“Niretzat jendea da garrantzitsuena; euren ohiturak, bizitzaren ikuspegia...”**

har asko egiten dut, eta gozatzeko garaian kanpoan egoten naiz denbora luzez. Suertea eduki dut horretan.

—Leku alternatiboetara joaten zarela dinozu. Zeintzuk dira horiek?

—Afrika dut kontinenterik gustukoena. Ahal dudan guztietan hara joaten naiz, eta bidaia askotxu egin dut dagoeneko. Ekialde Ertainera ere bai, Turkiara esatera-

ko. Gainera, aldi batez Buenos Airesen egon nintzen beharrea, eta txango batzuk egin nituen Patagoniara, etab. AEBetan beste urtebetez bizi izan nintzen, eta han-  
dik ere ahal beste mugitu nintzen. Eta Europan, noski, oso hurbil dago eta.

—Zer bilatzen duzu herrialde batean? Zelan definitzen duzu “alternatiboa”?

—Ohituta gaudenaren desberdina dena. Bizimodua, paisajea, animaliak, landare-

ak... guztiz desberdinak diren lekuak. Niretzat jendea da garrantzitsuena; euren ohiturak, euren bizitzaren ikuspegia, gure-  
aren hain desberdina. Eta hori asko emo-ten da Afrikan, noski.

—Bertakoak bezala bizitzen zara han?

—Ahalik eta antzekoen bizitzen ahale-  
gintzen naiz, baina ezinezkoa da hain den-  
bora laburrean, ez dago denbora nahiko-





rik guztiz egokitzeke. Hori bai, ez naiz bost izardun hoteletara joaten. Mendi-ibilgailu bat alokatzen dut eta gero bizi-modua bilatzen dut zelan edo halan, autoan edo gonbidatzen nauten edozein lekutan lo eginez. Afrikan oso erraza da jende-agaz harremana edukitea norberaren ibilgailuaren bitartez. Beraiek dauzkatenak baino garraio bizkorragoak bilatzen dituztelako. Gero, aukera egoten da eurekaz egun batzuk emoteko, euren etxeetan, oso eskuzabalak direlako.

### “New York bezain hiri arriskutsuetara joaten gara, baina bildurra diogu Afrikari”

—Okerreko usteak dauzkagu euretaz? —Zer esanik ez. Lehenengo eta behin, Afrikako iparraldekoetz eta Ekialde Ertainekoez, musulmanak izateagatik, gixiengo txiki baten alde txarra baino ez dugulako ikusten. Hegoalderagokoak, berriz -Afrika, Hegoamerika...- “atzeratutatzat” dauzkagu, aurrerapenaz daukagun ideiaren arabera, noski. Baina gu baino askoz aurreratuago daude, beste ikuspuntu askoren arabera. —Hau guztiau garestia izango da... —Denetik dago. Hemen lotzea baino garestiagoa da, hori argi dago. Diru-baliabideren bat edo beste behar da, baina bada goz hain garestiak ez diren bidaiaitzeko

### “Eleberri historikoa Historiari atxikitu behar zaio, ezin da jazo zena saihestu”

moduak. Botswanarako hegaldia garestia da, bai, baina gero han aukera egin dezakezu: diru pilo bat xahutu turismoarentzat propio atondutako lekuetara joanez eta luxuaz gozatuz, edo oso gitxi abentura bila bazoaz. Bigarrena da, nire ustez, leku horietara joateko modurik egokiena. —Oporretan zoazela dinozu. Jende gehienarentzat, oporrak ez dira beren beregi zuk egiten duzuna... —Eta niretzat ere besteenak ez dauka

zentzurik. Guztiz aspergarria begitantzen zait Mediterraneoko kostaldeko hotel batean hogeia egun emotea. —Baina ez da apur bat “profesionala” izan behar horrela bidaiaitzeko? Trebetasunen bat beharko da, jakintzaren bat... Zer egin, esaterako, 30 metroko sugetzar bat agertzen bazaizu bidean? —Aurrera egitea besterik ez dago, eta azken batean ekinez ikasten dira gauzak. Noski, sakrifizio apur bat behar da, deserosotasunak dagoz, eutsi beharreko bildurak...

Sugetzarra agertzen bazaizu, segurantzean ez dizu ezer egingo. —Tira, gehiegizko adibidea izan da... —Baina balio dit. Gauza askori diogu bildurra, eta askotan, bidaia baten aurrean, zailtasuntzat dauzkagu inozokeriak baino ez direnak. Sugetzarra ez da errepidetik doan autoa baino arriskutsuagoa. Baina bildur handiagoa diogu sugetzarrari. Edo elefanteei, edo Botswanako jendeari. Eta errazagoa da Gorteak kalean labankada hartzea. New York bezain hiri arriskutsuetara joaten gara, eta ez Afrikara. —Badago, Afrikaren inguruan, bertara doan eta, liluratuta, betiko han lotzea erabakitzen duen europarraren legenda...

—Bai. Kontua da jende asko lekuz kanpo dagoela Europan. Ez dagoz porlanezko mundu honetan bizitzeko eginda. Hara ailegatzen dira, eta eutsi ezinezko zeez iratzartzen zaie barruan. —Zeu izango zara horietako bat? —Ez dakit ba. Behin baino gehiagotan pentsatu dut. Tentazio handiak izaten ditut, eta bidaiaik tentazio horien ondorioa dira, noski. Baina hemen ere gusturago, eta seguruenik berton lotuko naiz.

Hala ere, ez zait begitantzen halako proiektu bat guztiz baztertzekeoa denik, eta inbidia diet egiten dutenei.

—Paco Umbralena egiten has zaitezen baino lehenago... *Tiempos turbulentos* nobela argitaratu berri duzu. Egiguzu berba horretaz...

—Eleberri historikoa da. Fikzioa da, asmatutako pertsonajeakaz, eta benetan existitu diren batzukaz batera; horien istorioak errespetatu egin ditut. XII. mendean girotuta dago, Ingalaterrako erresumaren eta Lurralde Santuaren artean. Garai bortitz haren berri emoten dut, hainbat pertsonaje desberdinen ikuspuntutik -nekezariak, abadeak, nobleak...- , eta nobelan zehar jazotzen den abentura baten inguruan.

—Emoten du modan dagoela eleberri historikoa, Toti Martinez de Lezeagaz eta abar... Iraganarenganako zaletasuna sortu zaigu bat-batean, ala?


—Egia esanda, hemen Totiri esker dago, baina nazioarte mailan modan dago, eta ez bakarrik literaturan, zinean ere bai. Uste dut, gainera, mundu bi horiek elkar elikatzen dabiltzala. Zineak, efektu bereziakaz eta abarreka, iraganeko garai batzuk biziteko aukera emoten digu, haienganako jakingura sortuz, eta horrek literatura ere bultzatu du.

—Argi dago halako nobela bat prestatzeko dokumentazio lanak berebiziko garrantzia daukala. Gero, idaztean, zenbaterainoko zilegitasuna dauka nobelagileak Historiaren gertakariak aldatzeko?

—Eleberri historikoa ondo atxikitu behar zaio Historiari. Ezin da jazo zena saihestu. Baina beti ere, nor bere istorioak asma ditzake, jazo zitekeena idatziz. Kontua ez da garai hartan ezinezkoa zen istorio bat kontatzea, jazo zitekeen eta jazo ez zen zeez kontatzea baino. Eta horrez gain, jakina, erne ibili garai hartan existitzen ez ziren elementuak ez aipatzeko (jakiak, jantziak...). Horrek sinesgarritasuna kentzen dio idatzitakoari. m







# Arraunlariakaz

Eguraldi ona egiten hasi da eta itsasora txangoa egitea plan ona zela otu zitzaigun. Jakin genuen Algortako Arraun Tadeak aurtan, aspaldiko partez, trainerua osatzeko behar beste arraunlari lortu dituela -sei beren beregi Lekeitiotik etorritakoak. Aitzakia polita zen. Beraz, Arriluzen azaldu ginen eta arraunlariakaz batera itsasoratu ginen euren entrenamendua argazkitan jasotzeko asmoz.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**

















## zineeskola

Oskar Fernandez

## Zinema eta publizitatea

Norbaitek esan zuen arnasten dugun airea oxigenoz eta publizitatez osaturik dagoela. “Fenomeno izugarri” honen frogak edonon topa ditzakegu. Demagun, zine-aretoetan sarrera ordaindu behar izan arren, filma ikusi baino lehenago gure begi ninietatik iragarki batzuk sartzen dizkigutela. Txarrena ez da hau, baizik eta ohituta gaudenez honen aurka ez dugula ezer egiten. Baina hau, nire uste apalean, gaizki egon arren ez da txarrena. Txarrena, beharbada, telebistako ekoizleek filmekin egiten dutena izan daiteke. Gauza bat da filma hasi baino lehenago iragarkiak irentsi behar izatea eta beste bat, oso desberdina, filmeak hainbat etenaldirekin ikusi beharra. Kasu honetan, ahalik eta zuzenena eta zehatzena izateko, telebistarako egindako filmen (telefilmak) eta zine-aretoetara zuzendutako filmen artean bereiztu beharko genuke. Telefilmak deitutako pelikulak egitura eta planifikazio berezia edukitzeko pentsaturik eta ekoizturik daude. Eta horrela publizitatea sekuentzien artean era naturalean tartekatzen da. Beraz, telebistako ikusleek nolabaiteko naturaltasunez publizitatea onartuko lukete. Baina, gauzak zeharo desberdinak dira filmak pantaila handirako eginda daudenean eta telebistaren bidez ikusten ditugunean. Film hauek moztea errespetu falta ikaragarria da bai ikusleentzako bai zuzendarientzat. Europako Parlamentuak eta Kontseiluak “Directiva” 97/36/EK deitutako legeak bere hamaikagarren artikuluan gai hau, publizitatearena alegia, legeztatu eta arautzen du. Artikulu hau beste era batera interpretatuz filmeekin egiten den apurketa ikaragarria behin betirako amaitzea posible litzateke. Erroreak hau ez genuke inondik inora baztertu behar. 4

## FANT 2005

**Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdiaren XI. edizioa maiatzaren 10tik 15era** egingo da

**FANT**, Bilboko Zinema Fantastikoaren Jaialdia, hilaren 10tik 15era egingo da eta 11. edizioa da aurtengoa. *Ryan* Oscarretako film sarituak emango dio hasiera jaialdiari (Capitol zinemak, 19:45). Sail ofizilean hurrengo filmak emango dituzte: *CSA*, *The green butchers*, *Feux Rouges*, *El habitante incierto*, *Habitaciones para turistas*, *Krontoll*, *Les Revenants*, *Masnap*, *Primer*, *Tempus Fugit*.

Bestalde, Etorkizuna Hurbilago sailean, Mexikoko Fantasiatzko Zinearen Zikloan 1945etik 1970era ekoizitako filmak ikusi ahal izango dira: *El sexo fuerte*, *Arañas Infernales*, *La Momia Azteca contra el robot humano*, *El planeta de las mujeres invasoras*, *Santo contra la invasion de los Marcianos*, eta *La nave de los Monstruos*.

FANT Maisuak sailean fantasiatzko eta bel-

### «Ryan Oscar saridunak inauguratuko du FANT maiatzaren 10ean»

durrezko maisu-lanak eskainiko dira eta bertan hurrengo film ezagunak emando dira: *The curse of the werewolf*, *El testamento del Dr. Mabuse*, *Kuroneko*, *La mascara de la muerte roja* eta *Ordet*. *la palabra*. Zinearen Pozoia sailak *Alter Egos* eta *Cineastas a cual-*



Informazio gehiago: [www.zinebi.com/eus/fant.html](http://www.zinebi.com/eus/fant.html)

*quier precio* hartuko ditu bere baitan; FANT-N’Rock Gauean bi film emango dituzte: *Hair High* eta *Ramones: End of the century*; Fisher & Frankenstein sailean hiru: *La maldicion de Frankenstein*, *El cerebro de Frankenstein* eta *Frankenstein y el monstruo del infierno*. Film laburrek ere badaukate bere lekua FANTen eta 12 film emango dituzte. Asiako beldurrezko eta fanasiatzko zinemagintzaren lanik berrienak ikusteko aukera ere egongo, eta *Nontzeflash* eta *Nontzefilm* sareko lehiaketetako lan sarituak ere proiektatuko dituzte. m

## Ez galdu > “La vida es un milagro”

• **Non:** Getxo Antzokia • **Noiz:** maiatzak 13, barikua • **Ordua:** 22:00 • **Zinema Paradiso**



Filme honen atzean Europako oso zuzendari ezagun bat dago: Emir Kusturica. Film gutxi zuzendu dituen arren ospe handiko zuzendaria da Kusturica. 1981ean bere lehen film luzea egin zuen eta handik aurrera beste sei lan eraman ditu pantailara. *La vida es un milagro* 2004an egin zuen eta urte berean Cannesko Nazioarteko Zinemaldian aurkeztua zuen sari oso garrantzitsua lorturik. Kusturicak gidoia idazten parte hartu du, baita soinuari ere. Izan ere, bera musikaria da, baija jotzen du. Lan honetan oso istorio interesgarri eta erakargarria garatu du Kusturicak. Filmaren protagonista Belgradoko ingeniaria da eta herri txiker batean tren proiektu bat egiten ari den bitartean gudaren hotsak entzuten hasiko dira, baina bera bere baikortasunari esker inguruko errealitatetik urrun biziko da.

## Riff, saltzen eta sortzen

**Eskola eta musika tresnen dendak** 10 urte daroaz Algortan eta eskualdeko talde askoren entsegu leku ere bada



Alvaro Segovia irakasle eta Atom Rhumbako kide, eta Miguel Moyano Riffeko kudeatzaile

**Hastapenetan** orain dela hamar urte inguru Sarrikobaso kalean zabaldu zituen ateak Riff musika dendak. Uhinek ez dute bidea alperrik egin, eta gaur egun musika denda izateaz gain musika-eskola ere bada; halaber, entsegu lokalik ez daukaten taldeentzako gelak alokatzen ditu.

Villamonteko plazan lekutu zenean, dagoeneko 6 urte badira, orduan hasi zen eskolak eskaintzen. Gaur 100 ikasle inguru

dauzka eta 7 irakasle dabilta bertan. Irakasle ia denek eurek ere beste talde batzuetan jotzen dute (Afrika, Atom Rhumba...). Musika Modernoko Eskola da Riff (rockagaz lotura estua dauka), eta bertan gitarra, baxua, bateria, piano eta teklatura, saxofoia, tronpetea, perkusioa eta kantuko eskolak eskaintzen dira, euskaraz zein gazteleraz. Horretaz aparte, “Combo” eskolak ere ematen dituztela azaldu du Riffeko kudeatzaile Miguel Mo-

yanok: “*tresna desberdinak jotzen dituzten ikasleak batzen dira, talde modura ikasteko: zelan sortu abestiak, doimua, biak uztartu...*”.

Bestalde, Uribe Kostako eta batez ere Getxoko talde askok Riffeko bi gelak erabiltzen dituzte entseguetarako. Moyanok azaldu moduan, “*Getxokoek Kultur Etxearen diru-laguntza jasotzen dute alokairua ordaintzeko; talde batzuk euren lokala lortu arte datoz hona, beste batzuk ohikoak dira: Ataque de*

### «100 ikasle inguru dabilta Riff Musika Modernoko Eskolan»

*nervios*, *Maxia*, *Canal Blues...*”. Gelaren alokairua orduaren arabera da: merkeenak 5 euro balio du, garestienak 10 euro inguru.

Gurean “*rock&trrollak ez du dirurik ematen*” kantari aurre egiten 10 urte daroaz Riffek eta zera aitortu du Moyanok: “*gatxa da musikatik bizitzea, izugarri lan eginda ozta-ozta baina bizi zaitezke, erromantikotasunetik asko edaten da eta gauza asko egiten dira musu truk*”. Etorkizuneko proiektuen artean ondorengo egitekoa bete gura dute: “*beste tresna batzuk jotzera animatu gura dugu jendea; orain dela ez asko pentsaezina zen andrezko bateria-jole ikasle bat egotea gaur 4-5 dauzkagu, edo baxuak; topiko eta muga horiek gainditu gura geniztuke*”.

**Harremanetarako: 94 430 31 32**

## diskoak

**Hang on little tomato**  
Pink Martini  
Naïve



Hamar taldekide dira, Portlandetik (AEB) datoz, eta orain dela hamaika urte hasi ziren musika egiten Almodovarren film bat ikusi ostean. Thomas Lauderdale daukate musikagile, eta China Forbes, berriz, abeslari. Pink Martinik aspaldiko musika jotzen du (swing, bossa, chanson frantziarra...), eta bigarren disko honetan sei hizkuntzatik abesten dute; japonieraz, kroazieraz...

**Waiting for sirens' call**  
New Order  
Warner



Joy Divisionen errautsetatik sortu ziren orain dela 24 urte, eta gaur egungo talde askok (Franz Ferdinand, The Killers...) euren eragina onartzen dute. Lau urtez isilik egon ostean, Manchester hiriko laukoteak zortzigarren disko hau kaleratu du. Alaitasuna kutsatzen duena eta biribila melodia gogoraerrazatan. Bere ibilbide luzeko abestirik onenetarikoa ere grabatu dute, *Turn* bikaina.

**Rock'n'Roll**  
Aterkings  
Gaztelupeko Hotsak



Little Richard, Chuck Berry edo MC5-ren abestien moldaketak jotzeko asmoagaz elkartu ziren Markinan 2000. urtean. Inolako lotsa barik “frontman” baten atzean ezkutatuta, dibertitzeko musika egiten hasi ziren. Disko zuzen eta fresko honetan surf, garaje, rockabilly, punk eta bestelako doinuak entzungo ditugu, betiere rock klasikotik hurbil, antzinako maisuak goraipatuz eta gaurkotuz.





uribe kostako  
aldizkaria

aldizkaria  
etxean  
jaso nahi  
baduzu

94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

## dirulaguntzak

lagundu nahi baduzu  
hauxe da gure kontua

Boluntzarreta  
BBK 2095 0121 10 9102483676

**UK Uribe Kostako Aldizkaria**  
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua  
48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz  
tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

[liburuak]

## Volgako batelariak bloga

Literaturaren gaineko gogoetarako eta  
kritikarako **“bitakora” digitala** uretaratu dute

**Pasadan** Aste Santuko oporretan menturatu ei ziren 5 batelari literaturari buruzko hausnarketarako eta kritikarako aldizkari digitala sareratzera. Blog batean plazaratuko dituzte euren lanak, beraz *Volgako Batelariak* aldizkariak ez du maiztasun finkorik edukiko, horregatik sortzaileek “inoizkari” modura ere aurkeztu dute. Blogak mezuak ordena kronologikoan (berrienak goi aldean) ikusgai dituzten guneak dira, Volgakoek Eibar.org-en blog komunitatean sortu dute euren ibaiak. Aldizkaria apirilaren hasieran aurkeztu zuten 5 batelariak: Ibon Egaña, Juanjo Olasagarrek, Iban Zalduak, Rikardo Arregi Diaz de Herediak eta Angel Errok. Kaleratu duten lehenengo manifestuan euren asmoak argi azaldu zituzten: *“Moñoñotasuna, zurikeria, bertso-kitsch-laritzza, biktimismo orokortua,*

**«Iban Zaldua, Ibon Egaña,  
Angel Erro, Rikardo Arregi  
Diaz de Heredia  
eta Juango Olasagarre»**

*produktu literario paketatua, euskararen kalonjeen (uler bedi: irakurle militanteen) nagusitasuna, plastidekor-idazleak, malditismo falsuaz mozorrotutakoak, laurogeiko hamarkadaren (eta aurreko ia guztien) nostalgia... horiek guztiak gaitzesten ditugu eta hemen beldurrik gabe*



[www.eibar.org/blogak/volga](http://www.eibar.org/blogak/volga)

*salatuko. Akaso ez dira salagarri eta denbora galduko dugu, baina esan bezala, gogoak ematen dizkigu hala egiteko, dibertitu nahi dugu, eta dibertituko gara”.* Gogor bogatu dute batelariok, eta bertoko marinel zaharrak esango lukeen legez: “afrontua” (enbata) dakar. Bigarren manifestu batean honela azaltzen dute euren egitasmoa: *“Galdetuko diguzue: zer da Volgako Batelariak? Eta guk enantzungo dizuegu Volgako Batelariak oihu etsitu bat dela, Askatasunaren eta Inautzaren aldeko aldarria. Eta Chicagoko Maiatzaren leheneko hura ekarriko dizuegu gogora.”*

Boga-boga, batelarien bloga! Goazen Volgaga eta Kantauriko lituteratur ur hotzetara! m

liburuak



**Antologia apetatsua**  
Julio Cortazar  
Txalaparta

Julio Cortazar argentinarra Latinoamerikako literatura eztanda batean astindu zuen idazleen artean dago. Antologia hau egiteko garaian, Jon Alonsok bere hamar ipuin hartu ditu aintzat (eta euskaratu) Cortazarren obra anitzaren bizkarrezurra ipuinek osatzen dutelako, gainontzeko testuak alde batera utzita, baina gutxietsi barik.



**Gaur ere ez du hiltzeko...**  
Iñaki Seguro  
Alberdania

Prosa jostagarri eta zehatza erabili du Seguroak saikera eder honetan kezkatzen gaituzten hainbat gai jorratzeko: egia, tristura, maitasuna, gatzetasuna, zoriona eta heriotza, hemengo betiko kontu potoloak saihestu barik. Dena puzzle erakargarri batean, edonondik hasita irakurlea harapatuko duena.

[kirola]

## Badago trainerua aurten

**Algortako Arraun Taldean** 36 bat arraunlarik dihardute gaur egun kategoría desberdinetan



24 urte dira Algortako Arraun taldeak Getxoko ikurrina antolatzen duela

**Aurten bai**, trainera gorria olatuakaz lehian ikusteko aukera egongo da. Algortako Arraun taldeak trainera osatzeko adina arraunlari dauzka eta ekaina amaieran (liga hasiko denean) *Portu Zaharrak* itsasoan bogatuko du.

Garai batean Algortako trainera bazen nor arraun munduan, baina beste kirol batzuen alde, arraun zaletasunak behera egin du gurean, ia hondoa jo arte. Algortak 1894an hartu zuen parte lehenengoz estropada batean, 1917an *Ageo* izenagaz jardun zuen, eta 1935tik 1970era ez zuen estropadarik lehiatu. 1966an sortu zen *San Nicolas de Bari* elkarteak, gaur Algortako Arraun Taldea legez ezaguna dena, eta 80. hamarkada izan zen benetan arrakastatsua. Alabaina, historia hurbilari erreparatu, orain dela 3 denboraldi Algortako arraunlariek Destukoakaz batu behar izan zuten trainera osatzeko; orain dela 2 Ibaizabal taldera joan ziren, eta iaz Antxon

Bretos patroiak azaldu moduan: *“batzuk Santurtzigaz ibili ginen, besteak Kaikun eta Lutxanan”.* Hala ere, trainerarik osatu ezin izan badute ere, neguko banku-mugikorrek eta batelen disziplinetan ondo ibili dira algortarrak. Halaber, aurten kanpotik 7 bat arraunlari etorri dira eta 10 hasiberri dauzkate, nahikoa *Portu Zaharra* berriro itsasoratzeko. Bretosek dionez, *“ziurrenik ez dugu lorpen handirik eskuratuko, jende berriak arraunean ikas dezan gabiltza lanean, ikasteko aukera da aurtengoa; gixienez trainera atarako dugu eta ia jendea arraunera berriro hurbiltzen den”.* 36 bat arraunlarik dihardute Algortako taldean, 10 andrazkoak dira. Zaletasunaren ganean zera ohararazi digu Algortako patroiak: *“Arrauna herriko kirola da, guk ez badugu bultzatzen nork egingo du? Ez da futbola moduan kanpotik etorri dela eta zaletuak edonon dauzkala; hau gure kirola da eta geuk zaindu behar dugu”.* m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



**350** m<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

**TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA**  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

**GOIZEAN**



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1  
T: 430 22 13  
GETXO

Telletxe 13  
T: 460 02 88  
ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430

Sarrikobaso 15



**Alicia Fernandez** > Getxoarte erakusketako komisarioa

“Gaurko artearen konplexutasunak uzkurtu egiten du heritar xehea, ulertzea gatxa delako”



Alicia Fernandez atzean Getxoarte 2005 iragartzen duen kartelagaz

**Alicia Fernandez bilbotarrak Artearen Historia eta Arte Eder ikasketak egin zituen, eta mundu horretan aurkitu zuen gerora ere bizibidea. Besteak beste, hainbat erakusketatako komisario moduan egiten du behar, eta halaxe da Getxoarten ere. Hemen, ordea, Fernandezek ez dauka bere gain komisarioek eduki ohi duten arduretako bat: artistak aukeratzea. Baina horrek ez du esan gura behar faltan dabilenik.**

—Nork aukeratzen ditu Getxoarteko artistak?  
—Urtero epaimahai desberdin bat egoten da. Profesionalak izaten dira beti, eta beti egoten da unibertsitateagaz lotura daukan epaimahaikideren bat. Azken batean, hemen egonda, artista gehienak Leioako unibertsitatean sortuak dira.  
—Zein irizpide erabiltzen da artistak aukeratzeko? Gaztea izatea da bat, noski...  
—Noski. Baldintza bakarra 35 urte baino gehiago ez edukitea da. Horrez gain, ze irizpide dauka epaimahaiak? Batetik, irizpide

estetikoa; bestetik, berrikuntza.  
—Zelako maila daukate aurkeztutako lanek?  
—Gero eta gehiago dira Getxoarterako beren beregi sortutako proiektuak. Hori ona da, lan handiagoa egitera behartzen dituelako artistak. Erakusketa egiten daroaguzan bost urteotan, gero eta hobeto prestatutako proiektuak aurkeztu dira.  
—Eta gero eta gehiago ere bai, ezta?  
—Aurton 184 izan dira, eta hori asko da erakusketaren beraren eboluzioa kontuan edu-

kita. Urterik urte handituz joan da; egia esan, hautagai asko egoten da nik epaimahai jardun dudana beste batzukaz konparatuta.  
—Prestigioa lortu du Getxoartek?  
—Prestigioa? A ze berba! Hara, helburua zabal-kundea da, eta horregatik egiten da ahalegin berezia katalogoak galeria guztietara ailegatzeko, erakusketa ezagutarazteko... Prestigioa baino, onena jendeak oinarri sendoa hartzea da. Kalitateari dagokionez, bost urte hauetako emaitza oso ona izan da. Jendea gero eta hobeto prestatzen da erakusketarako. Esan daiteke Getxoarte, momentu hone-

**«Getxoarte artista gazteen artean jazotzen denaren erradiografia zintzoa da»**

tan, arte munduan eta gazteen artean jazotzen denaren erradiografia zintzoa dela. Nik adin guztietako artistak ezagutzen ditut, eta oso atsegin zait aurrera egiteko hain gogo handia daukan gazte jendea ikustea.

—Eta nahikoa da gogoa? Izan ere, arte munduak oihana emoten du. Ez dago artista larregi? Merkatua ez da oso zabala eta...

—Kultura mundua eten barik aldatuz doa. Artista ez da, honezkero, margolari edo eskultore hutsa. Aitzitik, tresna desberdin asko erabiltzen ditu. Gaurko artea konplexua da, eta hori ona da artistari bitarteko zein ideia sorta zabala eskaintzen dion heinean. Baina konplexutasun horrek, aldi berean, heritar xehea uzkurtzen du, ulertzea gatxa delako. Horregatik, oso garrantzitsua da irakaskuntza, pedagogia. Baina hori lan eskerga da. Itaunari erantzunez, bai, artista asko ateratzen dira eskoletatik. Gero nork bere bidea egiten du, eta oso gitxik lortzen dute honetatik bizitzea. Merkatua herri honetan hasiberria dugu eta, egia esan, ez dago bildumategile askorik. m

**Esakere > “Porrusaldarekin bakarrik ezin bizi”**



Irudia: Gorka Vazquez

Gure gizartek hainbat kontraste dekoz. Gaur egun modan dauz gorputze yagoteko eta pisu galtzeko errejimenek eta dietak... Yaizu hau, edaizu beste, egizu gimnasia aparatu honegaz, eta atletan gorputze aukiko dozu. Eta danari yaramon egin ezkeron bere, sarri norberak eztau kentzen kilo erdi bat berez. Eta beste aldetik badau morroi gixajo ugeri, bapere errejimenik edo yogur esneganebakorik behar eztaudenak, baia pozik harrapako leukezenak, bai yogurrek, bai esnek eta bai behiek osorik!

Esakera hau G. Garatek baturiko da eta beran “Atsotitzak” bilduman topako dozue.

**Gureberbakere58**

**ESAKERE ZAHAR BATZUK**


Euskaldune beti ixen ei da behargiñe ixekeraz. Ondiño bere halauk gara? Ala alpertute gauz apur bet? Ezkara hori argitu guren ibilliko hemen, baia ekarri egingo doguz hona, beste behin, Azkuek baturiko esakera batzuk, atxiñe gehien aitetuten ziren lanak zeintzuk direzen eta auren ganera herrik ze ikuspegi euken erakusten daudenak. *Euskalerriaren Yakintza* behar handin topako dozuez.

Testua: **Xabi Bilbao**

- *Abadearen lapikoa, txikia baina gozoa* (Lekeitio).
- *Errementariaren etxean zotza burduntzi* (Derio eta beste).
- *Eskola-mutilak sasirik sasi, asko yan ta gitxi ikasi* (Derio eta beste).
- *Yaunen artean zein da latz eta gogorrrena? Tipi izatetik yauntzera eldu dena* (Peru Abarka).
- *Ikazkina, eskekoaren urrengoa* (Gernika).
- *Ikazkinaren lapikotoa andia, baina faltsua* (Derio eta beste).
- *Nai [nahiz] juju, nai jaja, medikuen esana bete egin bear da* (Azkue).
- *Neu ilezkero medikua atetara* (B). Hau da, ‘gauzak belu egitea’.
- *Olagizonak eta errementariak, praktaxu zarrak eta begiak gorriak* (Txorierri eta beste).
- *Orekariak orekan, arrantzaleak arrantzan* (Lekeitio).
- *Ori ori, Markinarrak pelotari* (Lekeitio).
- *Txalupan nagusi asko dagozanean, arrantza gutxi* (B).

Behar asko dauz, eta aspaldirik lanbide edo ofiziotan banatuten direz. Zelan hasten da norbera, baia, lanbide baten? Gahienatan eskolatan ikisite, baia sarri, bai lehen eta bai orain, “beharrak eraginte” beste barik:

- *Zer egin zenduzan [zintuan] beargin? –Bearrak bear eragin* (Peru Abarka).



**Iñaki Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta



**Sukalde eta Komunetarako Ekipamendu Osoa**

**Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa**

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91



**Errotalde ileapaindegia**

**HARTU TXANDA TELEFONOZ!!**

**T: 460 38 90**

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



**GIZONENTZAKO MODA**

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

**María Jesús**

**ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA**

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

**HARTU TXANDA**





gaizka escudero / villabotas-ekoa

## Txirlak saltsan

Eraz eta oso arin prestatzen den jakia dira txirlak (Plentziakoak gogoangarriak). Hasteko, berakatzu oso ondo txikitua eta pipermin aleak jarriko ditugu zartaginean su ahulean. Berakatzu urreztatu baino lehen koñak txorrotada ederra bota eta ondoren flanbeatu egingo dugu, hau da, sua hartu behar du. Gero ardao zuri apur bat eta arrain salda gehitu. Arrain saldarik egina ez badaukagu, esparrago lata bat zabaldu eta barruko ur hori gehituz ere ederto geratzen da. Sutan mantendu hau guztia bost bat minutuz. Azkenean txirlak, perrexila eta irin apur botako ditugu. Dena eragin salda ondo egiteko. Laster txirlak zabaltzen hasiko dira. Prest dago. Guztira hamar minutu baino ez dira izan, arin ezta? m

### osagaiak (bi lagunentzat)

- txirlak, hiru dozena • berakatzu, hiru ale • pipermina, ale bi • koñaka ardao zuria • irina • arrain salda • perrexila • oliba olio



itsaso arana / jolastoki-koa

## Alacant jatorrizko izendapena

Alacanteko ardaoak oso eskualde desberdin bitan banatzen dira. Alacanteko Azpieskualdea deitzen dena, probintziako hiriburuaren iparmendebaldean dago, herrialdearen iparraldean, Vinapoló ibaiaren inguruan. Azpieskualde honetan soroak terrazetan itsasorako norabidean jaisten dira. Han ardao tradizio handia duten herriak daude: Elda, Villena, Monóvar, Novelda...

Beste azpieskualdea, De la Marina esaten zaiona, kostalderaino sartzen den sistema iberikoaren zona garaian eta kostakoan dago. Han daude Javea, Denia, Parcent... herriak.

Alacanteko azpieskualdean *garnatxa tintorera* (han Alacantekoa deitzen dutena) eta *bobala* dira lantzen dituzten mahats motak. De la Marinako azpieskualdean, oster, *monastrell zuria* eta *moskatela*.

Ardao beltzak, zuriak eta moskatel gozoak egiten dira han. Bodegarik aipagarrienak: Gutiérrez de la Vega, Primitivo Quiles eta Enrique Mendoza. m



## Urruti Etxe jatetxea

Tradizioari eusten 1981az geroztik



Mari Asun (erdian) eta Arantza Etxebarria ahizpak ditugu jatetxeko sukaldariak

**Hasieran**, Ramon Etxebarriak burdin-degi bat zabaldu gura zuen, baina Mari Asun Urrutia emaztea ostalaritzan ibilitakoa zenez, jatetxe baten ardura hartu zuen familia osoak: Azkorriko Taberna-txu, hain zuzen. *“Amak probatu gura zuen, eta burua berotu zigun. Bost urterako bakarrik izango zela hitz eman zigun”*, diosku Mari Asun Etxebarria sukaldariak. Baina hasierako bost urte horiek luzatuz joan ziren: Tabernatxun 1972tik 1978ra bitartean jardun ostean, Etxebarria Urrutia familiak Urruti Etxe jatetxea paratu zuen Benantziosko bidegurutzearen ondo-ondoan 1981ean. Aipatutakoez gain, Arantza eta Ramon anai-arrebak ere bertan dabilta.

Oso jatetxe handia da (360 metro koadro inguru), leiho handiakaz (ikus-

menak ere gozatu ederra hartzen du), eta jangela bakoitzak (bi daude) 72 lagunentzako tokia dauka. Sukaldariak eta zerbitzariak kontatuta, guztira 10 langile daude beharrean. Goizeko 8etan irekitzen dute asteleheneretik eguna arte; bariku, zapatu eta domeketan, oster, 10etan. Euskal sukaldaritzaren tradizioa dugu Urruti Etxeko berezitasuna. Mari Asunek arrainak plantxan, ahate giharra eta okelak nabarmendu dizkigu. Horiek guztiak eta gehiago eguneko zein gaueko menuetan (7,60 euro lanegunetan; asteburuetan, berriz, 9 euro inguru) eta menu berezietan (18 euro) agertzen dira dotore asko. m

**Urruti Etxe jatetxea**  
Sarrikobaso 46 - Algorta  
T. 94 430 11 52



gOZOLABEA

galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



etorri  
eta  
ikusii!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia oroko-
- ma
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, beheko eskuina  
ALGORTA  
94 94 430 76 96



san inazio

autoeskola

1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP

**baimenak**

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**

**ezagutzen al duzu?**

herriko pintxorik  
onenak ditugu

**etorri eta probatu!!**

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

eleizalde  
taberna


eguneko menua

Kresaltxu 13  
T: 94 602 14 33 - ERROMO-GETXO



JOKIN GARATE BAYO  
Neguriko Etorbidea 9  
T: 491 14 87  
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Aingeruaren etorb. 4B  
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 GETXO



SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZU-
- NA
- 3 HILABETEKOKO GARAN-
- TIA

& 94 430 52 00

Kasune, 18 • ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



VIEJO

kopak eta  
giro jatorra

Alangobbarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA





**prentsa • aldizkariak**  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

### BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

## OLATXO

altzariak  
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA  
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA  
T. : 94 491 13 94



aldizkaria  
**etxean**  
jaso nahi  
baduzu

94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

[horoskopoa]

### URA



**(Abenduak 21 urtarrilak 19)**  
Telefonoaren faktura helten zaizunean, orduan komeriak! Berbetan hasten zarenean ez daukazu ezelako presarik, baina gero damutu egiten zara. Hurrengoan hobeto pentsatu, marxa honetan soldata guztia xahutuko duzu-eta sakelakoaren faktura ordaintzeko.

### AITZURRA



**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
Gutago duzu edalontzi bete garagardo eskuan eduki, maitalea beso artean eduki baino. Ez duzula ligatzen? Eta horrek harritzen al zaitu? Edalontziari egiten dizkizun kasu eta latzanak beste norbaiti egingo bazenizkio!

### GARIA



**(Ekainak 19 uztailak 18)**  
Joño! Zenbat gauza gertatzen zaizkizun! Eta denak harrigarriak! Eta den-denak egun berean! Ai, Garia, “gezurrak buztana labur”. Zergatik zara hain gezurteroa? Maite zaituenak zaren legez maite zaitu, ez daukazu inor liluratu beharrik.

### META



**(Irailak 17 urriak 16)**  
Etsairik ez daukazula esan daiteke. Aurpegik ona ipintzen diezu den-denei. Horren arrazoia da zeure iritzirik ez duzula askotan plazaratzen, besteena onesten duzula. Bide hori errazena da baina ez egokiena ezta oparoena.

### OTSA



**(Urtarrilak 20 otsailak 18)**  
Azken aldian ez daukazu ezertarako ilusiorik. Abentura berri bati ekin beharko zenioke: ez diotsut Amazoniak oihanean galdu behar zarela, baina bidaia txikiren bat, elkarteren batean izena eman. ... Bestela sofaren goroldio bihurtuko zara!

### HOSTOA



**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
Orain arte beharrik ez zaizu falta izan. Ez dira izan kontratu bikainak baina han hemenka ibili zara lanean. Lasai, lan kontuek hobera egingo dute. Bestalde, zergaik ez duzu ingelesa edo frantsesa ikasten?

### LASTOA



**(Uztailak 19 abuztuak 17)**  
Ba al dakizu astiro dabilenak arin doanak baino gehiago goxatzen duela? Gauza txiki, baina polit gehiago antzematen ditu, eta txikiegiak direlako arin doanak ezin ikus dezake horien edertasuna. Egin aproba.

### HAZIA



**(Urriak 17 azaroak 15)**  
Ez duzu beti hain ozen berba egin behar, baxuago eginda ere entzungo dizute. Askotan besteak isilarazteko egiten duzula dirudi eta hori ez dago batere ondo. Batzuk nazkatuta daude dagoeneko jarrera horregaz.

### ADARRA



**(Otsailak 19 martxoak 20)**  
Bigarrenak ez dauka lehenengoaren osperik, baina berea da lehenengoa estutu izanaren harrotasuna. Zeure buruaz harro egon beharko zenuke, behargin fina zara eta horrek noiz edo noiz edukiko du bere saria, ikusiko duzu!

### EGUZKIA



**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
Usteak erdi ustel. Ilusio handia egiten zizun, baina gauzak ez ziren gertatu zuk imaginatu legez. Hobe duzu ezer ez imaginatzea eta gauzei bere bidea egiten uztea, gehigo goxatuko zenuke. Ez zara azitia!

### IRATZEA



**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
Inork agintzen ez diolako maite duzu itsasoa. Inork derrigortu ezin dezakeelako maite duzu eguzkia. Eta barru-barruan jakin bada-kizu, berari ezin agin diezaikezulako maite duzula hainbeste. Baina, bera menderatzen ahaleginduko zara bihar ere.

### NEGUA



**(Azaroak 16 abenduak 20)**  
Erraz sorgindu zaituzte haren begiek, eta berak irribarre egin bezain pronto, hark gura duena egiten duzu zuk. Zubitrik behera zeure burua botatzeko eskatuko balizu, zuk halantxe egingo zenuke? Izan zaitetz zu zeu.



## mungia

oKINDegia

Algortan badaukagu  
artisauen ogia  
izen eta jatorriz  
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA





denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

|    | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 2  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 3  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 4  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 5  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 6  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 7  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 8  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 9  |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 10 |   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |

Taula honek hamaika beltzune ditu

Ezker eskuin

1. Auzokoa, aldamenekoa. 2. Olariak. 3. Lapurdiko herria. Burdinbidea. 4. Hiri barruko errepideko tren. Ogi, hitz elkarketan. 5. Eite, itxura. Azkenekoa eta lehenengoa. Sufrea. 6. Ipar, zirikatua. 7. Oxigenoa. Metal estimatua. 8. Urrea. Zaldiak mugiarazteko interjekzioa. Bostehun. 9. Ebazpen. Gizon izena. 10. Intsektu nazkagarria. Gipuzkoako herria.

Goitik behera

1.Esku. Ukatzeko. 2. Gaueko argi. Batrazio ezaguna. 3. Zaraitzuko. 4. Nafarroako Bortziritako herria. Iridioa. 5. Berrogeita hamaika. Bigira, gualdi. Iodoa. 6. Igarle. Mapa. 7. Laudorio, gorespen. 8. Momentu, lipar. Musika-partituren euskarria. 9. Ipotx, ñaño. Arabako alderdi politikoa. Musika nota. 10. Hutsa, desegokitasuna. Joaki da.

| Soluzioak |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|-----------|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| V         | A | I | A | V | I | R | H | O | Z |
| O         | W | L | E | T | I | A | I | E | P |
| D         | I | R | A | R | A | U | A | V | A |
| V         | A | R | A | V | L | I | Z | O | K |
| A         | U | T | A | K | I | Z | T | I | K |
| S         | A | Z | E | T | E | G | I | E | S |
| T         | O | A | B | I | B | N | R | T | R |
| V         | N | E | T | R | E | V | A | R | S |
| K         | N | O | Z | I | G | V | O | L | A |
| V         | N | G | V | L | I | Z | I | B | I |

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Euskaltzalea
- Euskaltzaindian sartu zen lehenengo emakumea
- Eskarmentu handia dauka bozeramaile lanetan

> Aurrekoaren erantzuna: Iban Mayo

> Irabazlea: **Zunbeltz Vega Olaeta (Getxo) \***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

•Argia astekariaren hiru bilabeteko harpidetza doan



•Gartxot komikia

www.argia.com



ARGAZKIA: KEPA URKIZA

Piperrak koadrila Portu Zaharreko jaietan, 1974

**Urte askoan** Algortako Itxasgane talde gogoangarriak herriko gazteak hainbat zereginetan bildu zituen: dantza taldean, skoutean, mendi taldean... Itxasganeren inguruan zebiltzan, hain zuzen ere, goiko argazkian azaltzen diren lagun guztiak. Euren koadrila propioa ere osatzen zuten: *Piperrak*. Goiko argazkia Kepa Urkiza argazkilariak egin zien 1974ko Portu Zaharreko jaietan koadrilen arteko sokatira txapelketa irabazi eta gero. m

**Zutunik:** Edu Saitua, Antton Azkargorgorta, Alberto Basterretxea (GB), Txema Bretos, Aitor Ansoleaga.

**Makurtuta:** Alfredo Aldai, Xabier Moragues, Gerediaga, Juan Luis Moragues, Roman Deusto.



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria



ASISKO URMENETA > irudigilea

“Umoreak malgua, hezea eta fina izan behar du”

Testua: Jon Urresti



**Defini ezazu zeure burua berba bitan.** Xixare leiala.  
**Zein animaliaz zatoz bat?**  
Aurrekoarekin: lurrari atxikia, malgua, hezea eta fina. Halaxe behar du izan umoreak ene ustez.  
**Zein liburu gustatuko litzazuke idaztea?** *Aita Santuen krimenak* entziklopedia.  
**Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**  
*Doraemon eta piratak.*  
**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**  
Joana III.a, gure erreginarik ausartena. Euskarari eta okzitanierari behar zuten gradoa eman zien, eta Erreforma bultzatu zuen Euskal Herrian. Senarrak (lehenengo Borboia tronoan) saldu zion Inkisizioari, baina beranduegi: Frantziako Erreginak pozoindurik hil zuen Parisen.  
**Zure jakirik gogokoena.**  
Agnostikoa naiz gastronomian. Zernahi jan dezaket, eta gogotik.  
**Aitor dezakezun bizio bat.** Autoan noala, Euskadi Irratiko albistegia entzutea.  
**Oporretara joateko lekurik aproposena.**  
Uruguay: ttipia, abegikorra eta dibertigarria.  
**Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**  
Norbaitek ni analizatzen saiatzea: ez da eroso mikroskopiopiko izatea.  
**Zer janzten duzu lo egiteko?**  
Ohekidearen arabera: kondoia, baselina, kastidade gerrikoa...  
**Zer gordetzen duzu sakeletan?**  
Atarrabi eskuinekoan eta Mikelats ezkerrekoan. Aholkulari talde paregabea ni bezalako desorekatu batentzat.  
**Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.**  
Etxe bat. Oraindik ari natzaio bankuari pagatzen... eta aunitz urtez!  
**Zein berri gustatuko litzazuke entzutea albistegi batean?**  
Azkenean urrats ebolutibo berria egin dugula, eta jendeago bilakatu garela.  
**Ohitura txarren bat...** Goiz jaikitzea gustatzen zait; berandu oheratzea ere, izugarri. Biak uztartzen saiatzea dut ohitura ezinago txarra.  
**Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?**  
Hereneguneko mozkorraldian: ene potekidea hasi zen eta nik, elkartasunez edo, lagundu nion orroaz. Hango muki feria! m

**LABURREAN** — Ironia arma zorrotza dela deritzo “*etsipenean ez erortzeko*”. Asisko Urmenetak (Iruñea, 1965) makina bat kolaborazio prentsan eta irratian, hitzaldi eta liburuentzako ilustrazio eginak ditu. Astero, gaurkotasun politikoaren gaineko begirada marrazten du Argia aldizkariako *Gora Pro Nobis* atalean. Iruñeako komiki lehiaketa irabazi ostean 1988an Napartheid, Nafarroako euskarazko komiki-aldizkari bakarra, sortu zuen. Mikel anaiagaz batera, Kukuxumusuko kamiseten diseinu guztien atzean egon da hasieratik, eta oraindik jarraitzen du. Arraroa da hori, Asiskoren zaletasunik handiena denaz aldatzea delako. Badauzka, hala ere, zaletasun iraunkorragoak: mendia, bidaiak eta euskara; izan ere, euskalkien ezagutza sakona dauka, eta hizkera ez-formala gustatu izan zaio betidanik: “*euskara informala ere landu egin behar da*”, aldarikatzen du. Auto istripuen zale amorratua ere badela jakin dugu. Nafarroa Behereko herri txiker bateko (ez du izena “salatu” gura) etxe handi batean bizi da orain: “*betiko ametsa gauzatzea izan da, naturatik hurbilago egon hiritik baino*”. Zazpiak Batman taldeagaz batera, Mantxut proiektuan dabil, eta 2003an Aiaccium Prix Mediterranea saria eman zioten *Gartxot* komiki-albumari esker.

# BaPiruke

## udaleku irekiak

### colonias abiertas

udan ere **euskaraz!!**

**NORI ZUZENDUA:** 5-12 URTE BITARTEKO UME EUSKALDUNEI

**PREZIOA:**  
1. TXANDA: BAZKIDEEK 42€ / EZ BAZKIDEEK 55€  
2. ETA 3. TXANDAK: BAZKIDEEK 80€ / EZ BAZKIDEEK 105€  
(PREZIOA TXANDA BAKOITZARI DAGOKIO)

**NOIZ:**  
TXANDA 1: EKAINA 23-30  
TXANDA 2: UZTAILA 1-15  
TXANDA 3: UZTAILA 18-29

**TOKIA:**  
ALGORTA ETA ERROMON

**IZENA EMATEKO EPEA:**  
MAIATZAREN 3TIK  
EKAINAREN 10ERA ARTE (GOIZEAN)  
BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA  
KARITATE KALEA 1, 10. BULEGOA  
48990-ALGORTA  
TEL: 944 914 357 / 675 713 967



Arrolatzailea / Organizador:



Laguntzailea / Colaborador:

